## 5. DOKUMENTUA

# ANTOLAMENDU ARAUAK

AURRETIAZKO TITULUA
Lurraldearen Zatiko Plana aplikatzeari buruzko xedapen orokorrak

LEHEN TITULUA
1. kapitulua
Aiarako eskualde-egiturako lurralde-eredua definitzeko helburu orokorrak eta oinarrizko irizpideak
2. kapitulua
Ingurune fisikoaren eta lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari buruzko zehaztapenak
3. kapitulua
Ingurumen-kalitateko azpiegiturei buruzko zehaztapenak
4. kapitulua
Azpiegiturei eta ekipamenduei buruzko zehaztapenak
5. kapitulua
Kokaguneen sistemari eta jarduera ekonomikoen espazioei buruzko zehaztapenak

BIGARREN TITULUA
Lurraldearen Zatiko Planaren lotura

10. ARTIKULUAREN ERANSKINA. Baldintza bereziak dituzten ibai-esparruak

33. ARTIKULUAREN ERANSKINA. Bizitegi-lurzoruaren eskaintzaren kuantifikazioa

# AURRETIAZKO TITULUA

## LURRALDEAREN ZATIKO PLANA APLIKATZEARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Aplikazio-esparrua.

Aiarako Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Plana, indarrean jartzen denetik, honako udalerri hauetan aplikatzekoa izango da: Amurrio, Arakaldo, Artziniega, Aiara, Llodio, Okondo, Urduña-Orduña eta Orozko.

2. artikulua. Indarraldi-baldintzak.

Plan honek indarraldi mugagabea du, denbora jakin baterako programazioaren kalterik gabe eta berau berraztertu edo aldatzeko aukeraren kalterik gabe.

Plan honetako zehaztapenen bat baliogabetzeak, deuseztatzeak edo aldatzeak ez du gainerakoen baliozkotasunean eraginik izango. Haatik, gerta daiteke aurrekoekin lotuta izateagatik edo horien menpe egoteagatik zehaztapenen bat aplikatu ezin izatea.

Aiarako Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Plana idazteko eta jarraipena egiteko eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailek eta Araba eta Bizkaiko Foru Aldundietako sailek memoria bat egingo dute lau urtez behin. Memoria horretan, Planaren betetze-maila baloratuko dute, arloko lurralde-plangintzan eta udal-mailako hiri-plangintzan izan duen eragina aztertuko dute, eta antzematen diren bat ez etortzeak saihesteko, halakorik gertatu bada, hartu beharreko neurriak definituko dituzte. Memoria hori Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igorriko zaio, jakinaren gainean egon dadin.

3. artikulua. Aiarako Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planaren dokumentuak eta dokumentu horien hedadura arauemailea.

1.- Plan honek honako dokumentu hauek ditu:

* “1. Memoria” dokumentua.
* “2. eta 3. Azterlan ekonomikoa eta finantzarioa eta egikaritze-programa” dokumentua.
* “4. Antolamendu-planoak” dokumentua.
* “5. Antolamendu-arauak” dokumentua.
* “6. Eraginpean dauden udalerrietako bakoitzeko plangintza zein puntu zehatzetan aldatzen den finkatzeko dokumentu osagarria”.

2. - Izaera orokorrez, Aiarako Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planaren eduki arauemailea beronen dokumentu guztietan bildutako zehaztapen guztiek osatzen dute.

Hala ere, “5. Antolamendu-arauak” dokumentuko eta “4. Antolamendu-planoak” dokumentuko zehaztapenek dute berez izaera arauemaile hori.

Gainerako dokumentuek, funtsean, izaera adierazlea, erreferentziazkoa edo justifikatzailea dute, eta, hori dela-eta, aurretik adierazitako dokumentuen edukiarekin kontraesanik badago, dokumentu haiek nagusituko dira.

4. artikulua. Aiarako Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Plana aldatzea eta berraztertzea.

1.- Planaren dokumentazioan edo zehaztapenetan egiten den aldaketa edo gehikuntza oro hartzen da planaren aldaketatzat, betiere Plana osotasunean berriro egitea ekarriko ez duen aldaketa bada. Aldaketa horiek, beraz, ez dute Planaren osotasunean eraginik, eragin puntualak edo bakanak izan ezik.

Aldaketek interes orokorreko arrazoietan oinarritu beharko dute, eta bere edukiaren eta hedaduraren deskribapen xehatua eskatuko dute, baita beren justifikazio zehatza eskatu ere. Ildo horretan, behar bezain zehatz ebaluatuko dira Aiarako Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planaren aurreikuspenen gaineko ondorioak, biztanleriari, enpleguari, ekipamendu komunitarioari eta azpiegiturei dagokienez.

Aldaketa guztiak berauek justifikatzen dituen arrazoiarekin lotuko dira. Hortaz, arrazoi horrekin lotzen ez diren aldaketak ezin izango dira espedientean barne hartu, ezta egindako deskribapenetan edo justifikazioetan espresuki aipatzen ez diren aldaketak ere.

2.- Legezkotasunari buruzko arrazoiengatik –legeen aldaketa, lurralde-antolamendua etab.– zein aukera edo premiaren ondoriozko arrazoiengatik, Aiarako Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Plana berraztertzeko har daitezkeen ekimenak edozein izanik ere, honako kasu hauetan ekingo zaio Plana berraztertzeari:

a. Eskualde-egiturako biztanleriak plan honetan proiektatzen diren gehienezko aurreikuspenak %6 gainditzen dituen guztietan.

b. Planifikatutako etxebizitza berrien %75 eraikitzeko lizentziak eman diren unean.

c. Jarduera ekonomiko berriak ezartzeko aurreikusitako lurzoruaren %75 baino gehiago okupatu den unean.

d. Behin betiko onartu denetik hamasei urte igaro direnean.

e. Orokorrean, Lurraldearen Zatiko Planean biztanleriari, enplegu-dinamikari edo etxebizitzaren merkatuari buruzko oinarrizko magnitudeei dagokienez, aintzat hartu diren hipotesiak behingoan gertatutako zirkunstantzien ondorioz aldatu direnean, eta, beraz, ezarritako antolamendu-irizpide orokorrak aldatu behar direnean.

f. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak aldatu edo berraztertu ondoren, lurralde-eredua aldatu behar denean eta horrek eskualde-egituran zuzeneko eragina izango duenean.

g. Nolanahi ere den, Aiarako Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planaren indarraldiaren zortzigarren urtean, Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen arabera formulatzeko eskumena duen organoak Plana berraztertzeko aukera egiaztatuko da.

5. artikulua. Aiarako Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Planaren interpretazioa.

Aiarako Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Plan honetan biltzen diren zehaztapenak interpretatzea Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari dagokio.

# LEHEN TITULUA

## 1. KAPITULUA

## AIARAKO ESKUALDE EGITURAKO LURRALDE EREDUA DEFINITZEKO HELBURU OROKORRAK ETA OINARRIZKO IRIZPIDEAK

6. artikulua. Lurralde-ereduaren erreferentzia estrategikoak.

Lurraldearen ezaugarriek eta Euskal Herriko Eskualde Hiriaren testuinguruan duen posizioak eskaintzen dituzte Aiarako Eskualde Egiturako Lurraldearen Zatiko Plana formulatzeko funtsezko erreferentzia estrategikoak:

a. Bilbaoko eremu metropolitarrarekiko posizio estrategikoa. Bilbaoko eremu metropolitarrarekiko hurbiltasun geografikoaren eta eskualde-egituraren eta espazio metropolitarraren artean dauden konexio-azpiegitura garrantzitsuen ondorioz, Aiarako Eskualde Egitura hazkunde-tentsioen mende dagoen eta Bilbaoko hiriak eta bere inguruak bizi duten aldaketak dakartzan berregituratze eta zabalkundeko prozesuei onura ateratzeko baldintza ezin hobeak dituen espazioa da.

b. Ahalmen handiko ingurune fisikoa, hazkunde berriak hartzeko ahalmen handia duten esparru zabalak eta ingurumen, paisaia eta hiri arloko erakargarritasun ikaragarria duen landa-ingurunea uztartzen dituena. Horrek guztiak kalitate handiko lurralde-eskaintza sortzen du, eremu metropolitarreko beste espazio batzuen osagarria.

c. Ahalmen handiko garraio-korridoreak Nerbioi ibaiaren haranean bizitegi-hazkunde eta produkzio-hazkunde berriei sostengua emateko aukera eskaintzen du, zentro metropolitarrarekiko eta Bilbaon eta bere inguruan kokatzen diren mota guztietako ekipamendu handiekiko konexio azkarrak eta eraginkorrak ahalbidetzen dituzten garraio publikoko sistemen bitartez.

7. artikulua. Lurralde-helburuak.

Honako hauek dira eskualde-egitura antolatzeko lehentasunezko lurralde-helburuak:

a. Bilbao Metropolitarraren hurbiltasunaren ondorio diren abantaila konparatiboak aprobetxatzea espazio horrek bizi dituen dinamika berrietan eraginkortasunez parte hartzeko.

b. Lurraldearen ingurumen- eta paisaia-kalitatea zaintzea eta hobetzea, etorkizunerako funtsezko aktiboak dira-eta.

c. Eskualde-egiturako biztanlegune nagusietan erakargarritasuna hobetzea eta hiri-funtzioak eta zerbitzuen eta jarduera-espazioen eskaintza indartzea.

d. Landa-esparruetako ekonomia garatzeko eta demografia finkatzeko estrategia definitzea, esparruok mantendu ahal izateko eta berezitasunez hornitzen dituzten ezaugarriak babesteko.

8. artikulua. Lurralde-ereduaren elementuak.

Planteatutako erreferentzia estrategikoekin eta helburuekin bat etorriz, Lurraldearen Zatiko Planak eskualde-egiturako lurraldea antolatzeko honako erreferentzia-elementu hauek ezartzen ditu, bertan garatuko diren udal-planek eta arloko jardunek aintzat hartu beharko dituztenak:

1. Lurralde-ereduaren oinarria eta euskarria ingurune fisikoa eta ingurumenaren kalitatea dira. Ingurune fisikoa kontserbatzeko eta hobetzeko, Lurraldearen Zatiko Planak hiru ekintza-ildo planteatzen ditu, lurraldearen garapen eta iraunkortasunaren berme gisa:

a. Natura, baso eta nekazaritzako interesaren ondorioz edo interes hidrologikoaren ondorioz babestu edo zaindu behar diren espazioetako lurzoru urbanizaezineko esparruak identifikatzea, baita lurralde-proposamenean eragin handia duten birsorkuntzarako eta hobekuntzarako aukera ematen duten espazioetako lurzoru urbanizaezineko esparruak ere.

b. Lurzoru urbanizaezinean erabilera-erregimen bat ezartzea, bai Lurraldearen Zatiko Planak babestu edo zaindu beharreko espazio gisa identifikatzen dituen lurretan, bai udal-plangintzaren araberako antolamendua duten lurretan.

c. Lurraldearen ingurumen-kalitaterako oinarrizko azpiegiturei eta natura-baliabideen kudeaketari buruzko ekintzak identifikatzea eta karakterizatzea, eta horiek lurralde-ikuspegitik garatzeko beharrezkoak diren irizpideak ezartzea.

2. Espazio funtzionala egituratzen duen korridore zentralean zehar hiri-espazio integratu eta berritua diseinatzera zuzentzen diren jardunen emaitza den Nerbioiko Ardatz Teknopolitarrak honako elementu hauek hartu ditu bere baitan:

- Nerbioiko Parke Lineala, esparru horren osotasunari jarraipena eta kalitatea ematen dion korridore berde gisa.

- Trenbideak eta A-625 errepideak osatzen duten azpiegitura-euskarria, ardatzean zeharreko hiri-garapenak lotzen dituen bide gisa.

- Hiru hiri-nodo nagusiak:

  - Llodio, hiri-berrikuntzako eremu gisa eta eskualde eta metropoliaren mailako funtzio berriak hartuko dituen eremu gisa.

  - Amurrio, bizitegi-eskaintzaren eta jarduera-espazioen eskaintzaren bitartez zentraltasun berriko esparru bat sortzera zuzendutako hazkunde-ahalmena duen espazio gisa.

  - Urduña-Orduña, bizitegi eta turismorako gunea, hiri ekologikoko esperientzia pilotu izango dena.

3. Ekosistema Minipolitarrak: landa-inguruneko guneek eta burutzek eta Nerbioiko ardatzaz kanpo dauden dentsitate txikieneko espazioek osatzen duten lurralde-esparrua. Esparru honetarako bizitegi eta turismoko estrategia berria proposatzen da, funtsezko elementu hauen inguruan antolatutako estrategia hain zuzen ere:

  - Betiko Herriak, landa-habitatean kokatzen diren bizitegi eta jarduerarako modu berriak hartzeko guneak.

  - Burutzak eta turismo-zerbitzuen guneak, dentsitate txikiko eremuetan aisialdi-jardueretarako beharrezko zuzkidurak eskaintzera eta lurraldean dauden aukerez baliatzeko baldintzak sortzera zuzenduak.

  - Lurralderako sarreraguneak, natura-espazioen erabilera iraunkorra kudeatzeko hiri-oinarri txiki bat eskaintzen dutenak.

- Atseden-eremuak eta lurraldeko sare berdea, aisialdirako espazioen eta naturarekin harremanetan dauden ibilbideen eskaintza ingurumenarekin bateragarria gauzatzera zuzendutako esparruak.

# 2. KAPITULUA

## INGURUNE FISIKOAREN ETA LURZORU URBANIZAEZINAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKO ZEHAZTAPENAK

9. artikulua. Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua.

Lurzoru urbanizaezina antolatzeko mapak honako hauek jasotzen ditu:

a) Lurraldearen Zatiko Planean berariazko babesa eskatzen duten eremu gisa identifikatzen diren eskualde-egiturako lurraldearen esparruak; babes hori aurrerantzean udal-planek jaso beharko dute.

b) Lurraldearen gainerakoa Lurraldearen Zatiko Planak berariaz babesten ez duen esparrua da; udal-plangintzari dagokio hori kategorizatzea eta arautzea.

Lurraldean garatzen diren jardueren eta bertan dauden esparruen artean harreman iraunkorra ezartzea da asmoa, hori baita Lurraldearen Zatiko Planak eskualde-egiturarako proposatutako estrategiaren funtsezko faktorea.

10. artikulua. Babestutako esparruak.

Erantsitako Ingurune Fisikoaren Antolamendu Matrizea da Lurraldearen Zatiko Planak babestutako esparruak arautzeko erreferentzia, bertan ezartzen baitira erabilerak arautzeko kategoriak eta irizpide orokorrak.

Honako kategoria hauek hartu dira aintzat:

1. Natura-intereseko eremuak: Kategoria honetan babes bereziko eremu gisa adierazitako esparruak sartzen dira, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Espazioen Sareko esparruak (Gorbeiako Natura Parkea eta Itxinako Mendiguneko Biotopo Babestua dagokien berariazko plangintzaren arabera arautuko dira), EAEko Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean adierazitako balio naturalistiko handieneko hezeguneak (Llodioko eta Maroñoko urtegia, Goi Erbiko putzuak, Goi Nerbioiko urmaelak eta istilak Urduña-Orduñan eta Izaldeko landaredi urtarreko sistemak Okondon), Garobel mendigunea, Gibijo mendiguneko labarrak-Delikako ur-jauzia, Nerbioi ibaiaren hasierako ibilbidea, eta Llodioko artadiak. Era berean, kategoria honetan sartuta geratzen dira “zuhaitz berezi” gisa katalogatuta dauden aleak, eta bereziki “Artziniegako artea”.

2. Hobetzeko eta/edo berreskuratzeko eremuak: Kategoria honetan sartzen dira Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapan halakotzat adierazitako eremuak, Nerbioi ibaiaren ibilguan uholde-arrisku handiena duten eremuei dagozkienak (berriro gertatzeko 100 urteko aldia), eta lehengoratzeko eta hobetzeko beste ibai-ibilgu batzuen eremuak. Hauek zerrendatzen dira araudi honen bukaeran dagoen eta artikulu honi dagokion eranskinean.

3. Baso-intereseko eremuak: Kategoria honetan sartzen dira Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapan adierazitako esparruak, gaur egun aldapan dauden lurzoruen babesean, erregulazio hidrologikoan eta paisaiaren kalitatean eginkizun erabakigarria betetzen duten eta basogintzarako antolatuta aprobetxa litezkeen baso-sistemei sostengua ematen dieten espazioei dagozkienak.

4. Nekazaritza-intereseko eremuak: Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapan nekazaritza-babeseko eremu gisa adierazitako haran-hondoko espazioak sartzen dira hemen. Lehen sektoreko produkziorako ahalmen handieneko lurrei dagozkie.

5. Lur gaineko uren babesa: Kategoria honetan ibai-ibilguek eta beren babes-zerrendek osatutako korridore ekologikoak barne hartzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak

eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak (isurialde kantauriarra) ezartzen ditu babes-zerrenda horiek. Horrela, ibai-tarteen jabari publiko hidraulikoaren mugatik bi aldeetara zabaltzen diren zerrendak hartuko dira lur gaineko urak babesteko esparrutzat. Zerrenda horien zabalera finkatzeko, ibaien dimentsio hidraulikoa ez ezik, ingurunearen hirigintza eta ingurumeneko ezaugarriak ere hartuko dira aintzat:

a. 50 metro, Nerbioi ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Palanka eta Pagatxa erreken artean, Altube ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Nerbioi ibaiarekin bat egiten duen gunetik Argaitza errekarainoko tartean, eta Izalde ibaiaren lehen kilometroan Herrerias errekarekin bat egiten duen gunetik. Era berean, Maroñoko urtegiaren inguruan zabalera bereko zerrendak barne hartuko dira.

b. 30 metro, Nerbioi ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Pagatxa errekaren eta Delikaren artean, Altube ibaiak eskualde-egituran egiten duen gainerako tarterako, Arnauri ibaiaren ibilbide osorako (Gorbeiako natura-parkean barne hartzen dena izan ezik), Herrerias errekak eskualde egituran duen ibilbide guztirako, Ibalzibar errekarekin bat egiten duen tartetik, eta Izalde ibairako, Eskorreta errekarekin bat egiten duen guneraino, eta ingurune fisikoaren antolamendu-mapan irudikatzen diren, berariazko identifikaziorik ez duten eta babes bereziko esparruen artean barne hartu ez diren gainerako ibilguen lurzoru urbanizaezinerako.

c. Sare hidrografikoaren gainerakoaren kasuan, Uren Legean ezarritakoa aplikatuko da, babes hidrologikoaren ondorioz mugatu beharreko erabilerei dagokienez.

d. Maroñoko urtegiaren inguruan 200 m zabaleko zerrenda perimetrala definitzen da babes-eremu gisa, gehienezko ohiko urtegi-mailari dagokion lerrotik abiatuta neurtuta, uharkatik uretan gora eta bere isurtze-arroan bertan. Eremu horretarako plan honen zehaztapenak garatuko dituen plan berezi bat idatzi beharko da.

e. Ongi kontserbatutako landaredia hartzen duten zerrenda horien esparruetan, identifikatutako landare-formazioaren kanpoaldeko mugaz 10 metro harantzago zabalduko dira zerrenda horiek. Puntu horiek I. eranskinean zerrendatutakoak dira.

Ondoren adierazitako esparruak hartzen dira baldintzatzaile gainjarritzat:

1. Akuiferoen urrakortasuna: Baldintzatzaile hau ezartzen zaien lurrei dagokie, hots, I. eranskinean zerrendatuta daudenei.

2. Eremu higagarriak: Baldintzatzaile hau ezartzen zaien lurrei dagokie, I. Eranskinean zerrendatuta daudenei eta %15etik gorako aldapa duten lur guztiei.

3. Urpean gera daitezkeen eremuak: Halakotzat hartuko dira uholdeak berriro gertatzeko 500 urteko aldiari dagokion mailaren azpitik dauden lurrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren (isurialde kantauriarra) irizpideen eta arauen arabera.

4. Natura-espazioak: Gorbeiako Natura Parkeari eta Itxinako Mendiguneko Biotopo Babestuari dagozkie.

11. artikulua. Gainerako lurraldea.

Lurraldearen Zatiko Planaren babespean geratzen ez den lurzoru urbanizaezineko gainerako lurraldean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako Ingurune Fisikoa Antolatzeko Matrizean bildutako kategoriak eta arautzea aplikatu beharko ditu udal-plangintzak.”

12. artikulua. Erauzketa-jarduerak.

Udal-plangintzak erauzketa-jarduerek eraginpean hartutako eremuen mugaketa barne hartu beharko du, baita egun dauden administrazio-emakiden edo aplikatutako prospekzioen ondorioz erabilera horietarako erabil litezkeenak ere.

13. artikulua. Poluitutako lurzoruak.

Udal-plangintzak bere informazio-dokumentuetan gehituko ditu eragiten dioten “Euskal Autonomia Erkidegoko Poluitzaileak izan daitezkeen Jarduerak dituzten Kokaguneen Inbentarioan” bildutako esparruak eta erabilgarri dauden lurzoru poluituen katalogoak, bere antolamendua eta jarduteko proposamenak zirkunstantzia horietara egokitu eta, hartara, inpaktuak zuzendu eta kalteak saihestu ahal izateko.

# MATRIZ PARA LA ORDENACION DEL MEDIO FISICO/**INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDU-MATRIZEA**

1. Propiciado/*Egokia*
2. Admisible/*Onargarria*
3. Prohibido/*Debekatua*

* Planeamiento de Desarrollo/*Garapen-plangintza*

| | | USOS/ERABILERAK | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **Protección Ambiental** *Ingurugiroaren babesa* | | **Ocio y Esparcimiento** *Aisia eta Asialdia* | | | **Explotación de Recursos Primarios** *Lehen sektoreko baliabideen ustiapena* | | | | | | **Infraestructuras** *Azpiegiturak* | | | | | | **Usos Edificatorios** *Eraikuntza erabilerak* | | | | | |
| | | Conservación/*Kontserbazioa* | Mejora Ambiental/*Ingurugiroaren hobekuntza* | Recreo Extensivo/*Jolas-ihardura zabalak* | Recreo Intensivo/*Jolas-ihardura trinkoak* | Actividades Cinegéticas y Piscícolas/*Ehiza eta arrantza-ihardurak* | Agricultura/*Nekazaritza* | Invernaderos/*Negutegiak* | Ganadería/*Abeltzaintza* | Forestal/*Basoa* | Industrias Agrarias/*Nekazaritza-Industriak* | Actividades Extractivas/*Erauzketa-Ihardurak* | Vías de Transporte/*Garraiabideak* | Líneas de Tendido Aéreo/*Aireko lineak* | Líneas Subterráneas/*Lurpeko lineak* | Instalaciones Técnicas de Servicios de Carácter no Lineal. Tipo A/*Zerbitzu lineal ez diren instalazio teknikoak, A motatakoak* | Instalaciones Técnicas de Servicios de Carácter no Lineal. Tipo B/*Zerbitzu lineal ez diren instalazio teknikoak, B motatakoak* | Escombreras y Vertederos de Residuos Sólidos/*Hondakindegiak eta zabortegiak* | Crecimientos Urbanísticos apoyados en Núcleos Preexistentes/*Lehendik zeuden guneetan oinarritutako hirigintza hazkundeak* | Crecimientos Urbanísticos no apoyados en Núcleos Preexistentes/*Lehendik zeuden guneetan oinarritu gabeko hirigintza hazkundeak* | Edificios de Utilidad Pública e Interés Social/*Herri-onurako eta gizarte-intereseko eraikinak* | Residencial Aislado vinculado a Explotación Agraria/*Nekazaritza -ustiategiari lotu gabeko exebizitza isolatua* | Residencial Aislado/*Exebizitza isolatua* | Instalaciones Peligrosas/*Instalazio arriskutsuak* |
| CATEGORIAS DE ORDENACION / ANTOLAMENDU-KATEGORIAK | Áreas de Interés Natural *Natura-ingurune babestua* | 1 | 1 | 2 | 3 | 3 | 3 | 3 | 2* | 2* | 3 | 3 | 3 | 2* | 2* | 3 | 2* | 3 | 3 | 3 | 2* | 3 | 3 | 3 |
| | Áreas a Mejorar y/o Recuperar *Hobetu eta/edo leheneratu beharreko eremuak* | 1 | 1 | 2 | 2 | 2* | 3 | 3 | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 3 | 2* | 2* | 2* | 3 | 2* | 3 | 3 | 3 |
| | Áreas de Interés Forestal *Basozaintzako eremu babestua* | 2 | 2 | 2 | 2 | 2* | 2* | 3 | 2* | 1 | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 3 | 2* | 2* | 3 | 3 |
| | Areas de Interés Agrario *Nekazaritzako eremu babestua* | 2 | 2 | 2 | 2 | 2* | 1 | 2* | 1 | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 3 | 2* | 2* | 3 | 2* |
| | Protección de Aguas Superficiales *Lurazaleko uren babesa* | 1 | 1 | 2 | 2 | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 3 | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 3 | 3 | 3 | 2* | 3 | 3 | 3 |
| CONDICIONANTES SUPERPUESTOS / BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK | Vulnerabilidad de Acuíferos *Akuiferoen urrakortasuna* | 2 | | | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 3 | 2* | 2* | 2* | 2* | 3 | 2* |
| | Areas Erosionables/*Area higagarriak* | 2 | | | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 3 | 3 | 2* |
| | Areas Inundables *Urpean gera daitezkeen areak* | | | | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 3 | 3 | 2* |
| | Espacios Naturales Protegidos/Espazio Natural Babestuak | 1 | 1 | | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 2* | 3 | 2* |

# 3. KAPITULUA

## INGURUMEN KALITATEKO AZPIEGITUREI BURUZKO ZEHAZTAPENAK

14. artikulua. Ur-hornidura.

Biztanlegune guztiak erabilera desberdinetarako urez hornitzea bermatu ahal izateko ezinbestekoa da ura biltzeko azpiegitura berriak garatzea, uztailaren 24ko 1664/1998 Errege Dekretuak onartutako Iparraldeko III. Arroko Plan Hidrologikoan ezarritakoaren arabera, gaur egun Maroñoko urtegiak asetzen dituen zuzkidurak osatu beharra baitago, Lurraldeko hainbat puntutan zehar banatutako lurpeko eta lur gaineko hartuneekin batera.

Plan Hidrologiko horri eta egun dauden kudeaketa-erakundeek aurreikusitako planei jarraiki, hiri-hornidurari, abeltzaintzakoari eta industrialari beste baliabide batzuk esleituko zaizkie. Lehen etapa batean Maroñoko urtegia goratzearen eta bere erregulazio-ahalmena gehitzearen ondoriozkoak izango dira. Bigarren etapa batean Aiarako udalerriko Erbi herrigunetik hurbil eraikitzea aurreikusten den Herreriasko urtegia egiteari ekingo zaio.

Azkenean urtegi hori egiten ez bada, aginte hidrologikoak datozen urteetan beharrezkoak izango diren baliabide berrien jatorria identifikatu beharko du.

Maroñoko urtegia goratzea zein etorkizuneko urtegia eraikitzea elkarren artean lotuta dauden eta Burgosko probintzian kokatutako Artziniegako urtegiarekin lotuta dauden azpiegituratzat hartu behar dira, guztien bitartez erregulatutako emariak hobeto aprobetxatu ahal izateko kudeaketa-sistema bateratu eraginkorragoa osatu nahi baita.

15. artikulua. Saneamendua eta ur-arazketa.

1. Askotariko erabileren ondorioz sortu diren efluente guztiak araztea ingurumen-kalitaterako eta lurraldearen garapen ekonomikorako lehentasuna izango duen ekimena izango da. Ondokoak dira horretarako oinarrizko azpiegiturak: Artziniegako ur zikinen araztegia, Kadagua ibaiaren arroko udalerrien kasuan, eta Urduña-Orduñan, Markijanan (Amurrio) eta Besaurben (Llodio) aurreikusten direnak, Nerbioi ibaiaren arroan kokatzen diren udalerrien kasuan.

2. Lurraldean kokatzen den instalazio edo hirigintza-garapen berri orok azpiegitura horiei dagokien saneamendu-sarearekiko konexioa ziurtatu beharko du.

3. Goi Nerbioiko ur zikinen araztegiak Urduña-Orduña, Amurrio eta Llodioko udalerrietan behin betiko kokatzeko lurralde eta ingurumen arloko oinarrizko irizpide hauek ezartzen dira:

a. Instalazio horiek bizitegi eta zuzkiduren eremuen gainean sortzen duten inpaktua saihestuko duten babes-perimetroak ezarriko dira. Gutxienez 100 metroko distantzia egon beharko du ur zikinen araztegi bakoitzaren kokalekutik jendea bizi den edo ekipamendu publiko zein pribatuak dauden puntuetaraino, baita udal-planetako aurreikuspenen ondorioz etorkizunean ezar daitezkeen mota horretako garapenetaraino ere.

b. Azken kokalekuek ur zikinen araztegi bakoitzak zerbitzatzen dituen udalerri eta biztanlegune guztiek sortutako efluenteen tratamendua ziurtatzeko beharrezkoak diren baldintzak bildu beharko dituzte.

c. Paisaiaren gaineko inpaktua eta zaratek eta usainek eragindako ondorio negatiboak murrizteko premia dela-eta, instalazio bakoitzaren inguruan zuhaitzez eta zuhaixkaz osatutako landare-pantailak garatzea gomendatzen da. Berdegune horiek dagokien sistema orokorraren osagai izango dira eta berau arduratuko da haiek mantentzeaz.

d. Ahal dela, ez dira kokatuko 100 urtetik beherako birgertatze-aldia duten uholde-arriskuko eremuetan dauden lurren gainean. Kokaleku bideragarriek baldintza hori bete ezin badute, ur-bolada handiek azpiegitura eraginpean hartzea saihesteko beharrezkoak diren babes-neurriak gehitu beharko zaizkie proiektuei. Nolanahi ere den, instalazioen diseinuak ibaien ibilguan zeharreko pasabidea mantenduko dela ziurtatzeko beharrezkoa den ibai-bazterrekiko erretiroa mantendu beharko du.

e. Biztanleguneetarako sarbideetan ezarri beharrik ez dakarten kokalekuak nagusituko dira. Arestian adierazitako baldintzak bete ondoren, sarbideetatik, guneetatik eta komunikabide handietatik instalazioak begi-bistan uzten ez dituzten kokalekuei lehentasuna emango zaie.

16. artikulua. Hondakinen kudeaketa.

1. Lurraldearen dimentsio demografikoak ez du aukerarik ematen lurraldean sortzen diren hiri-hondakin solidoak eta hondakin geldoak behar bezala tratatzeko beharrezkoak diren instalazioak eraginkortasunez antolatzeko.

2. Lurraldea eraginpean hartzen duten hondakinak kudeatzeko planen aurreikuspenei jarraiki, Llodioko transferentzia-estazioa sustatuko da, eskualde-egituran sortzen diren hiri-hondakinak metatzeko eta ondoren dagozkien kudeaketa-instalazioetara eramateko gune gisa.

3. Landaguneetan hondakinak bereiz botatzera zuzendutako puntu garbiak kokatuko dira, hondakinak behar bezala sailkatu eta tratatu ahal izateko, horien artean nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerek sortutako hondakin ez-organikoak ere bilduko baitira.

4. Amurrioko Udalaren konpostaje-instalazioaren jardun-esparrua sustatuko da, bertan eskualde-egituran sortzen diren eta tratamendu hori aplika dakiekeen hondakin organikoak eta landare-hondakinak tratatzeko.

17. artikulua. Linea elektrikoak.

1. Hiri-lurzoruko linea elektrikoak lurpean ezarriko dira nahitaez, espaloien azpian. Galtzada-gurutzaguneak kutxatila itsuen bitartez ebatziko dira. Industria-erabilerako lurzoruan, salbuespen gisa, erdi eta behe-tentsioko kableak airetik kokatzea onartuko da.

2. Paisaian eta biztanleriarengan inpaktu handiena duten eskualde-egiturako linea elektrikoak egokitzeko programa abian jarriko da. Ildo horretan, lehentasunezkotzat jotzen dira finkatutako hiri-lurzoruak eraginpean hartzen dituzten linea elektriko guztiak lurperatzeko ekintzak.

3. Arloko plangintzak zehaztapen zehatzagorik ezartzen ez duen artean, udal-plangintzak eta arloko ekintzek honako irizpide hauek kontuan hartuko dituzte linea elektrikoak antolatzeko:

a. Lineen ibilbideak babes-distantzia jakin bat gordeko du pertsonak bizi diren edo horiek lan egiten duten lekuekiko (industriak, landetxeak, etxeak...), eragin elektromagnetikoa saihesteko: 1 m-ko distantzia utziko da linearen alde banatan lineak duen kV bakoitzeko.

b. Babes-distantzia hori gorde ezin den eremuetan, pertsonei ahalik eta inpakturik txikiena eragiteko beharrezkoak diren zuzenketa-neurriak ezarriko ditu linearen jabeak.

c. Baso-intereseko eremu gisa sailkatuta dauden lurretan zehar igarotzen diren aireko instalazio elektrikoek honako agindu tekniko hauek bete beharko dituzte:

c.1. Lineen azpialdea mantentzeko belar-sastrakak kentzeko lanek zuhaitzak errespetatuko dituzte. Mantentze-inausketak gorantz egingo dira segurtasun-distantziak errespetatzeko. Aireko instalazio berriak eraikitzen direnean, oihanpe hezeak sortzea sustatuko da, eraginpean hartzen dituzten lurzoruak espezie egokiekin lehengoratuz.

c.2. Isolagailuek, aireko ebakigailuek eta, oro har, abian jartzen direnean txinpartak sor ditzaketen gailu guztiek, landarediarekin elkar ukituz sua hedatzea eragotziko duen suaren kontrako sistemaz hornituta egon beharko dute.

d. Babesteko landa-lurzoruko kategorietan barne hartuta dauden aireko instalazio elektrikoek honako agindu tekniko hauek bete beharko dituzte:

d.1. Inguru menditsuetan edo erliebe malkartsua dutenetan, oro har debekatuta egongo da paisaiaren ikus-itxierak edozein ikuste-puntu posibletatik gainditzen dituzten aireko lineen euskarriak instalatzea. Ezinbesteko kasuetan, linea elektrikoak kota baxuenetik ezarriko dira, erliebearen topografiari jarraituz.

d.2. Oro har, instalazioen ibilbideak erliebearen kota topografikoei jarraituko die eta lurraren geomorfologiara egokituko da. Trazadura zuzenak inguru lauetan bakarrik onartuko dira.

d.3. Lehentasunez, betiere aurreko idatz-zatietan deskribatutako kasuetan eraginik ez badute, linea elektrikoak egun dauden komunikabide, errepide, trenbide eta abarretatik hurbil eta horien paralelo ezarriko dira, lurraldean trazadura berriak irekitzea saihestuz eta betiere segurtasun-distantziak errespetatuz.

d.4. Hurbilean beste linea batzuk daudenean, lehentasunez lehendik dauden lineak bikoiztuko dira linea berriak eraiki baino lehen. Arrazoi tekniko garrantzitsuengatik hori egin ezin denean, linea berria lehendik dagoenetik ahalik eta hurbilen ezarriko da, korridore bera aprobetxatu eta segurtasun-distantziak mantendu ahal izateko.

d.5. Euskarrien diseinuak paisaiaren gaineko inpaktua minimizatzea funtsezko faktore gisa aintzat hartuko du. Esate baterako, inguru aldapatsuetan hanka desberdinak erabiltzeak lurrera egokitzeko ahalmena nabarmen hobetu ez ezik, lur-berdinketa eta lur-mugimendu handiak egin beharra saihesten du.

d.6. Sostenguen oinarrietarako sarbideak honako baldintzatzaile hauek aintzat hartuz diseinatuko dira:

d.6.1. Egun dauden bideen sarea ahalik eta gehien aprobetxatzea.

d.6.2. Trazadura bihurgunetsua zuhaiztietan, ahalik eta zuhaitz gutxien moztearren.

d.6.3. Lurrera ahalik eta gehien egokitzea, ahal den guztietan sestra-kurbei jarraituz, lur-mugimendu handiak egin beharra eta lur-erauzketak eta lubetak sortzea saihesteko.

d.6.4. Zoruaren azaleko tratamendu txikiena, ahal den guztietan lurra bera erabiliz, inolako lur-berdinketarik egin gabe eta makineria arina erabiliz, biziberritze natural edo artifizial erraza ahalbidetze aldera.

e. Lurraldearen Zatiko Planak babes berezikotzat jotzen dituen inguruak eraginpean hartzen dituzten aireko instalazio elektrikoek, segurtasunari buruz indarrean dagoen araudia betetzeaz gain, hegaztiak babesteko beharrezkoak diren gailuak ezarri beharko dituzte; horretarako, edozein egoera atmosferikotan eroalea ez den materialez egindako euskarriak, kable txirikordatuak eta gurutzaketa isolatzaileak ezarri beharko dituzte.

f. Goi-tentsioko linea berriak eraiki beharra edo lehendik daudenen potentzia handitu beharra behar bezala justifikatu beharko da proiektuan, jardun horien beharrari buruzko azterketa eta behar horiek lehendik dauden lineekin betetzeko ezintasunari buruzkoa eginez.

28. artikulua. Energia eolikoa.

Arloko plangintzan ezarritakoari jarraiki, Ganekogorta eta Kolometako kokaleku eolikoak energia eolikoa sortzeko parkeak kokatzeko gaitasun handikotzat joko dira.

# 4. KAPITULUA

## AZPIEGITUREI ETA EKIPAMENDUEI BURUZKO ZEHAZTAPENAK

19. artikulua. Bide-sarea.

Bizkaiko Errepideak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean eta Arabako Errepideen Plan Integralean aurreikusitako jardunek eskualde-egiturako bide-sarea antolatzeko eta bide-sare horretan Lurraldearen Zatiko Planak planteatutako helburuak lortu ahal izateko garatu beharreko jardunetarako beharrezkoak diren erreferentziak eskaintzen dituzte.

1. Plan horiekin eta lurralde-proposamenekin bat etorriz, honako hauek dira eskualde-egiturako errepide-sarearen gaineko lehentasunezko ekintzak lurraldea egituratzen duten ardatzetan:

    a. A-625 errepidea egokitzeko eta hobetzeko jardunak: Amurrio ekialdeko saihesbidea eta Luiaondoko saihesbidearekiko konexioa amaitzea eta Urduña-Orduña – Amurrioko saihesbidea tartea egokitzea eta hobetzea.

    b. A-624 errepidea Amurrio – Artziniega tartean hobetzeko jardunak.

2. Eskualde-egituraren barne-artikulazioko ekintzei dagokienez, honako ekimen nagusi hauek daude errepideen arloan:

    a. A-3632 errepidea Garate gaineraino egokitzea Llodio – Okondo konexioa hobetzeko.

    b. BI-2522 errepidea hobetzea Llodio eta Orozko arteko konexioan.

3. Kanpoko konexioei dagokienez, honako hauek dira jardunik egituratzaileenak lurraldearen ikuspegitik:

    a. Eskualde-egituraren iparraldearen eta Enkarterriaren eta Kadaguako korridorearen arteko erlazioak: A-624 errepidea Artziniegatik hobetzea, A-2604 errepidea ere Artziniegatik hobetzea eta A-3641 errepidea Okondotik hobetzea.

    b. A-6 errepidearen korridorerako sarbideak eta Vitoria-Gasteizerako konexioak hobetzea: A-2521 errepidea Urduña-Orduñarantz eta A-3616 errepidea A-624 errepidetik Ousoñoraino, Orozkon.

    c. Kanpoko beste konexio batzuk, ahalmen egituratzaile txikiagoa duten arren landa-eremuetarako irisgarritasuna hobetzearen ikuspuntutik interesgarriak direnak —landa-eremuetan turismoa sustatzeko garrantzitsuak—: A-2602 errepidea, A-3636 errepidea Artziniegatik Burgosko probintziaraino, A-2625 errepidea Burgostik, Urduñako mendatean barrena, eta A-3630 errepidea Aiaratik, Erbiko haranean barrena Burgosko probintziaraino.

4. Landaguneetatik zerbitzuguneetarako irisgarritasuna hobetzeko eta potentzial turistikoa, atsedenerakoa eta jarduera ekonomikoak hartzekoa hobetzea sustatzeko barne-erlazio adierazgarri gisa, honako bide-tarte hauen gainean jardutea planteatzen da: A-2522 errepidea (Baranbiorako sarbidea), A-3618 errepidea (Maroño eta Madariarako sarbidea), A-3620 errepidea (Murga), A-3622 errepidea (Arespalditza – Luiaondo), A-3624 errepidea (Arespalditza – Zuhatza), A-3626 errepidea (Kexaarako sarbidea), A-3634 errepidea (Llantenotik A-2604 errepidera eta Gordexolara), A-3118 errepidea (Maroñotik Urduña-Orduñara), A-4603 errepidea (Onsoñorako sarbidea), A-4604 errepidea (Lekamañarako sarbidea), A-4605 errepidea (Tertangarako sarbidea), A-4608 errepidea (Aloriarako sarbidea), A-4610 errepidea (Izoriarako

sarbidea), A-4615 errepidea (Madariarako sarbidea), A-4616 errepidea (Llodio – Okondo), A-4619 errepidea (Luxorako sarbidea), A-4620 errepidea (Kexaa – Menagarai), A-4621 errepidea (Opellorarako sarbidea), A-4622 errepidea (Lejarzorako sarbidea), A-4623 errepidea (Mendietarako sarbidea), A-4624 errepidea (Sojorako sarbidea), A-4625 errepidea (Retes de Tudelarako sarbidea), A-4906 errepidea (Delikarako sarbidea), A-4907 errepidea (Artomañarako sarbidea) eta BI-2522 errepidea (Orozko – Baranbio). Halaber, garraio eta komunikabideen sarearen planoan Tertangarako A-4605 sarbide-errepidea gehituko da.

20. artikulua. Trenbide-garraioa.

Trenbide-garraioari dagokionez, toki, foru eta autonomia-erkidegoko erakundeetatik Bilbao – Llodio – Amurrio – Urduña-Orduña tartean aldiriko zerbitzuak areagotzea sustatuko da. Korridore honetan zehar trenen bidaia-kopurua gehitu nahi da, eta anezka gisako zerbitzuak gaineratuko dira, hau da, Bilbao Ardatz Teknopolitarreko hiriguneekin ahalik eta gutxien geldituta lotuko duten zerbitzuak gaineratuko dira, bidaia-denbora murriztuz, batik bat Amurriotik eta Urduña-Orduñatik.

Aldiriko zerbitzuak bultzatzeko ekimen horrekin batera, geltokiak eta beren hiri-ingurunea birmoldatzeko azterketa egin beharko da, erdigunea Amurrion eta Llodion mantenduz, horien inguruan erabilgarri dauden aparkalekuen azalerak handitzeko eta beren funtzioetara eskualde-egituraren barnealdean garatzen diren tokiko eta udalaz gaindiko garraio publikoko lineen amaierako geltokiak gehitzeko. Era berean, jarduera ekonomikoen eremuetan (egungoetan eta proposatutakoetan) geralekuak kokatzea bultzatuko da, pertsonen eta salgaien garraioa erraztearren.

21. artikulua. Garraio kolektiboa.

Eskualde-egiturako landa-espazioen eta hiriguneen artean garraio kolektiborako zerbitzuen esperientzia pilotuak garatzea sustatuko da. Horretarako, plaza-kopuru txikiko ibilgailuak erabiliko dira. Modalitate hori ezartzeko honako ibilbide hauek proposatzen dira lehentasunez: Artziniega – Amurrio – Llodio, Arespalditza – Okondo – Llodio eta Urduña-Orduña – Maroño – Arespalditza – Llodio, ibilbide horietan zehar dauden gune guztietan geldituz.

22. artikulua. Telekomunikazioak.

Telekomunikazioei dagokienez, tokiko jabari publikoaren okupazioari aplikatzekoa den araudia, telekomunikazio-sareetarako azpiegituren ezaugarriak, instalazio irrati-elektrikoak, eta telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea kontuan hartu beharko dira.

1. Kable bidezko telekomunikazioen zerbitzua eskualde-egituran zabaltzea lehentasunezko jarduna da Ardatz Teknopolitarreko gune nagusietan zehar, Llodion, Luiaondon, Amurrio-Murgan eta Urduña-Orduñan. Bigarren etapa batean zerbitzu horrek Artziniega, Orozko eta Okondoko guneak hartu beharko ditu, zerbitzu hori duten eremuetatik hurbil kokatuta daudenak, baita A-624 errepidean zehar kokatzen diren Aiarako udalerriko guneak ere.

2. Telekomunikazio-zerbitzuetako operadoreei beren jardunak eskualde-egiturako udalerrietan garatzeko emango zaien baimena eskualde-egiturako gune guztietan telefonia finko eta mugikor digitaleko eta etorkizunean UMTS sistemako zerbitzuen eta Internetekin ADSL edo horren ordezko teknologiaren bitartez konektatzeko zerbitzuen erabateko estaldura bermatzeko konpromisoa hartzeari lotuko zaio.

23. artikulua. Merkataritza-ekipamendu handiak.

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak merkataritza-ekipamendu handietarako ezarritako arautzea jasotzen du Lurraldearen Zatiko Planak.

Merkataritza-ekipamendu handien zuzkidura da lurraldean Bilbao Metropolitarrerako joan-etorrien hautabide moduko zentraltasun berriak sortzeko ahalmenik handiena duen ekipamendua. Llodio, Amurrio eta Aiarako udalerriak dira merkataritza-ekipamendu handiak

kokatzeko esparru estrategikoak, eskualde-zentraltasunekotzat jotzen direnak, honako dimentsionamendu honekin:

a. Plataforma zelaituaren gehienezko azalera garbia: 40.000 m²
b. Gehienezko sabai-azalera eraikia: 13.000 m²

1. Merkataritza-ekipamenduaren gehienezko dimentsionamenduaren gaineko muga horiek jarduera ekonomikoen poligono batean edo tamaina handiagoko plataforma logistiko batean instala litezkeen merkataritzako eta aisialdiko establezimendu guztien batukari orokorrari ere hedatu ahal izango zaizkio.

2. Saltoki bat egotearekin bateragarriak diren erabilerak eta jarduerak hirigintza arloan egoki antolatzeko, ibilgailuak petrolio-produktuz hornitzeko instalazioak Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren antolamendu-arauen 13.2. artikuluko b) eta c) idatz-zatietan definitutako merkataritza-ekipamenduetan bakarrik izango dira bidezkoak, hots, eremu zaharkituak birmoldatzearen edo espazio huts interstizialak edo errotazio-lursailak okupatzearen ondoriozko hiri-zabalguneetan kokatutako eraikuntza irekiko saltoki handietan, eta biztanleguneen kanpoko periferian kokatutako saltoki estentsibo handietan.

3. Merkataritza-ekipamendu handien eta aisiagune eta zerbitzuguneen ezarpenak eta, hala badagokio, horien zabalkuntza edo handitzeak, hirigintza arloan behar bezala funtzionatu ahal izateko, 5 aparkalekuko gutxieneko zuzkidura bermatu beharko du jendearentzako salmenta-azalerako 100 m²-ko.

24. artikulua. Turismo-garapena.

Urduña-Orduña eta Orozko landaguneetako turismo-burutza diren aldetik eginkizun horretarako beharrezko ekipamenduak eta instalazioak izan beharko dituzte. Udal-plangintzak bi herri horietako hirigune historikoetan hotel-erabilerak gara daitezen errazteko aukerak aztertu beharko ditu.

Arespalditza, Artziniega eta Okondok Turismo Zerbitzuen Gune gisa funtzionatu beharko dute dagozkien esparruetan. Ildo horretan, beren landa-ingurunean kokatzen diren ostatu eta zuzkiduren garapena bultzatzeko beharrezko eskaintza osagarria hartu beharko dute.

25. artikulua. Nerbioiko Parke Lineala.

Nerbioiko Parke Linealaren garapena Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapan adierazitako esparruen gainean gauzatuko da eta atseden-eremutzat joko da. Espazio hori lur gaineko urak babesteko kategoriari dagokio eta, horrenbestez, lurzoru urbanizaezintzat hartuko da eta lurzoru-mota horri dagokion erabilera-arautzea aplikatuko zaio.

1. Garapenari dagokionez, Parke Lineala lau jardun-unitatetan antolatuko da:

a. NPL-1, Eskualde-egituraren mugatik, Arakaldon, Luiaondoko herrigunearen iparraldeko hiri-lurzoruaren mugaraino.

b. NPL-2, Luiaondoko hiri-lurzoruaren hegoaldeko mugatik Amurrioko udalerrian dagoen industria-lurzoruaren iparraldeko mugaraino.

c. NPL-3, Amurrioko hegoaldean dauden industria-lurzoruen mugaren eta Urduña-Orduñako herrigunearen iparraldeko lurzoru urbanizagarrien artean garatzeko.

d. NPL-4, Urduña-Orduñako hiri-lurzoruen hegoaldeko mugatik eskualde-egituraren mugaraino, Amurrion.

2. Esparru hori baso-parke gisa sortuko da, eta funtsean ur-bazterreko landarediko espezieen zuhaiztiez, bide bigunez eta erabilera publiko estentsiboarekin bat datozen ezaugarriez osatuko da. Hirigune nagusietatik hurbilen dauden tarteetan (NPL-1, NPL-3 eta NPL-4) hiri-parkeen

berezko aisialdi eta kirolerako ekipamenduak gaineratu ahal izango dira, baita erabilera publiko intentsiborako egokiak diren aisialdi eta atsedenerako eremuak ere.

3. Nolanahi ere den, ingurumen eta aisialdiko ekipamendu hori garatzeko ekintzek I. eranskinean zerrendatutako tarteetan dauden landaredi-elementu interesgarriak errespetatu beharko dituzte eta eranskin horretan Nerbioi ibairako adierazitako inguru narriatuak bere onera ekarriko dituzte.

26. artikulua. Beste zenbait atseden-eremu.

Atseden-espazio handi horrekin batera, Lurraldearen Zatiko Plan honek beste hainbat atseden-eremu garatzen ditu Udalaz Gaindiko Ekipamenduen eta Espazio Libreen Mapan adierazten diren esparruetan: Santa Luzia, Llodion, eta Etxaurren eta Maroño, Aiaran. Atseden-eremuen eskualdeko sistema horretan udalerrietan gaur egun dauden atseden-eremuak ere barne hartu beharko dira.

1. Atseden-eremuek aire zabaleko aisialdi-jarduera bigunak hartzeko oinarrizko zuzkidurak izango dituzte: kanpaleku txikiak, mahaiak, eserlekuak, aire zabalean janaria prestatzeko elementuak, ura, komunak eta abar. Gainera, ingurunean behar bezala integratuko den eta egokituta egongo den aparkalekua izan beharko dute.

2. Atseden-eremuak egokitu edo prestatzeko eta kontserbatzeko aurrekontuetan haiek seinaleztatzeko eta mantentzeko kostuak sartuko dira, esate baterako garbitzeari, landaredia lehengoratzeari, bidea eta instalazioak kontserbatzeari eta abar dagozkionak. Eremu horiek mantentzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak sortzea ahalbidetuko duten autofinantzaketa-sistemak bilatuko dira.

27. artikulua. Lurraldeko Sare Berdea.

Lurraldeko Sare Berdea oinezkoek eta txirrindulariek lurraldeaz goza dezaten errazteko hainbat ibilbidez osatutako sarea izango da. Lurralde honetan dauden landagune interesgarriak, atseden-eremuak, aisialdi eta turismoko ekipamenduak eta natura-espazioak elkarren artean lotzen dituen sarea da, inguruaz osotasunean gozatzeko aukera eskaintzen duena.

1. Sare Berdearen ibilbideak egokitzeko lurrezko zoruak seinaleztatu, prestatu eta mantendu beharko dira eta ibilbideen paisaia-tratamendua zaindu beharko da.

2. Sare hori gaur egun dagoen errepide-sarean eta erabilera publikoko landa-bideetan oinarrituko da, ahal den guztietan bederen. Arloko planetan aurreikusten diren errepideen sareko jardunak aprobetxatuko dira, obrak egiterakoan zuzkidura hauek ere kontuan hartu eta gaineratzeko.

3. Gaur egun dauden egokitutako ibilbideez, bidezidorrez eta bidegorriez gain, Eskualdeko Sare Berdea garatzea bultzatuko da. Honako ibilbide hauek osatuko lukete sare hori, Udalaz Gaindiko Ekipamenduen eta Espazio Libreen Mapan adierazitakoekin bat etorriz: Okondoko zirkuitua, Artziniegako zirkuitua, Orozkoko zirkuitua, Aiarako haraneko zirkuitua, Maroñoko zirkuitua, Erbiko zirkuitua, Padurako zirkuitua eta Urduña-Orduñako zirkuitua.

28. artikulua. Kultura-ondarea.

Udal-plangintzak foru-aldundietako ondare-zerbitzuek ezarritako interes arkeologikoko esparruak hartuko ditu bere baitan, eta ondare-zerbitzu horiekin bat etorriz emango dizkie beharrezkoak diren babesak edo jarduteko irizpideak.

# 5. KAPITULUA

## KOKAGUNEEN SISTEMARI ETA JARDUERA EKONOMIKOEN ESPAZIOEI BURUZKO ZEHAZTAPENAK

29. artikulua. Nerbioiko Ardatz Teknopolitarreko hiriguneak.

1. Llodioko gunearen hiri-garapenak batik bat eraikitako hiria hartuko du ardatz, eta gunearen hiri-kalitatea eta funtzionaltasuna hobetzea ahalbidetuko duten berrikuntza-ekintzak garatuko ditu. Horretarako funtsezko irizpide gisa, honako ekintza-ildo hauek ezartzen dira:

   a. Trenbidea lurpetik bideratuko da Guardian Llodio enpresako fabrikazio-linea nagusiaren hego-mendebaldeko muturraren eta autobiaren erdialdeko lotuneko adarraren artean dagoen tartean, pertsonentzako eta salgaientzako gaur egungo trenbide-zerbitzuak mantenduz. Eragiketa horren bidez libre uzten diren espazioei esker, gunearen erdialdeko espazioa birkualifikatu eta ibaiertzak egokitu ahal izango dira, eta espazio erabilgarria izango da geltoki nagusia eskualde-mailako trukatze-geltoki gisa egokitzeko.

   b. Ibai-bazterrak eta hiriaren erdialdeko espazioak hobetu egingo dira trenbidea lurperatzen denean orain okupatzen dituen lurzoruak libre geratzen direnean. Ekimen horren ondorioz, ibaiaren lur mugakideak Nerbioiko Parke Linealaren barruan barne hartuko dira eta, hala, Llodioko parke nagusia eratuko duen hiri-egonlekua sortuko da.

   c. Hiri-berrikuntzako eragiketak eta bizitegi-espazio berriak eta eskualde-mailako zuzkidurak sortzeko eragiketak garatuko dira, trenbidea lurperatzeak eta hiri-berrikuntzako eta transformazioko ekintzek libre utziko dituzten espazioen gaineko jardunen bitartez.

   d. Bizitegi-eskaintza areagotu egin behar da horretarako kalifikatutako lurzoruak aprobetxatuz, bizitegi-garapen intentsiboen bitartez, eta erabilera horiek hartzeko ahalmena duten esparru berriak aprobetxatuz, Santa Kruz eta Txirrita arteko inguruan batik bat.

2. Amurrioko hiriguneak eta bere inguruneak garapen berriak hartzeko ahalmen handia eta kokapen zentrala dute eskualde-egituraren barruan eta Nerbioiko ardatzarekiko. Hori dela-eta, eremu hori Bilbao Metropolitarra deskongestionatzeko eskualde-egituraren eginkizuna bideratuko duten bizitegi-jardunak eta jarduera-espazioen jardunak sustatzeko aukera emango duen eremu handi gisa konfiguratu behar da. Horretarako, honako irizpide hauek ezartzen dira:

   a. Gaur egungo hirigunearen ekialdean eta ipar-ekialdean, Nerbioi ibaiaren eskuinaldeko eremuetan dauden lurzoru-erreserbak lortzea eta gaur egun kalifikatuta dauden bizitegi-lurzoruak garatzea.

   b. Hirigunearen ipar-ekialdean dauden eremuetan erabilera mistoak antolatzea (bizitegia, zuzkidurak eta hirugarren sektoreko jarduerak), Enpresa Etxeak izeneko eremua osatuz.

   c. Egungo hiri-lurzoru finkatuaren mendebaldeko eremuetan egitura eta paisaia antolatzeko jardunak gauzatzea, eraikuntza-erabileren eta espazio libreen nahastea aprobetxatuz ingurumen-erakargarritasun handiko hiri-esparrua konfiguratzeko.

3. Urduña-Orduñak bizitegi-eskaintza eta garapen berriak hartzeko ahalmen handia du. Bere ingurunearen ingurumen-kalitatea eta hiriaren ondare-interesa dira gune honen hazkundea bultzatzeko funtsezko aktiboak, Bilbao Metropolitarreko eta eskualde-egituraren iparraldeko dentsitate handiagoko eremuetatik urrunago egotea konpentsatzeko behar duen balio erantsia ematen diotenak.

a. Hirigune historikoa berreskuratzea da lehentasunezko helburua. Ildo horretan, hirigune historikoan dauden eraikinak birgaitzera zuzendutako ekintzak sustatuko dira. Lurraldearen Zatiko Planak ekimen honen arrakasta muga dezaketen fatxadak babesteko arauak berrazter daitezen bultzatuko du.

b. Bizitegi-garapen berriak gaur egun programatuta dauden lurzoruen gainean sustatuko dira; alabaina, eskaintza hori zabaldu ahal izango da gaur egungo hirigunearen ondoan, ekialdean saihesbidearen egungo itxituran eta hirigunearen eta industria-eremuaren artean, dauden lurzoruen erreserbaren bitartez.

c. Komunikazio-azpiegiturak hobetzea, hemen A-625 errepideari buruz egiten diren zehaztapenak batik bat, eta trenbide-zerbitzuak areagotzea ezinbesteko baldintzak dira Urduña-Orduñarako proposatzen den estrategiak arrakasta izan dezan.

30. artikulua. Ekosistema minipolitarrak.

1. Artziniega, Okondo eta Orozkoko udal-burutzak eta Araiako Menagarai-Beotegi, Murga eta Arespalditzako herriguneak erreferentziazko biztanleguneak dira eskualde-egituraren landa-espazioak garatzeko eta lurraldea antolatzeko.

2. Gune horiek, Betiko Herriak, gaur egungo guneen ezaugarri morfologiko eta estrukturalekin integratutako lehen edo bigarren bizitegiko hazkundeen bitartez suspertuko dira funtzionalki. Suspertzeko estrategia hori bultzatzeko elementu gisa, funtsezko hiru ekintza-ildo ezartzen dira:

a. Eskualde-egitura barruko eta kanpoko hirigune nagusiekiko errepideko konexioak hobetzea.

b. Telekomunikazio-zerbitzu aurreratuen erabilgarritasun-maila handiak lortzea, hirugarren sektoreko jarduera berriak eta telelanean dihardutenbiztanleak ezartzea ahalbidetuz.

c. Landa-esparruetara zuzendutako ingurumena hobetzeko eta turismoa bultzatzeko ekintzak biztanlegune horietan bisitarientzako zerbitzuak kontzentratzeko ekintzetan sostengatu behar dira.

3. Horrenbestez, biztanle iraunkorrak etengabe gehitzean eta turismo-ostaturako establezimenduak sortzean oinarrituko da hazkundea. Bigarren bizitegia aukera interesgarritzat jotzen da, batez ere gune horietako azpiegiturak eta zerbitzuak hobetu ahala bere erabiltzaileak biztanle iraunkor bihurtzeko ahalmen handia duelako.

4. Gaur egungo etxebizitzak birgaitzeko ekintzek funtsezkoak behar dute izan etxebizitza-parkea gehitzeko eta hiriguneetako hiri-kalitatea mantentzeko. Alabaina, beste jardun batzuk ere gauzatu ahal izango dira eskari antolatuan oinarrituta, betiere guneen bereizgarri diren ezaugarri morfologikoak eta tipologikoak mantentzen badira.

4.1. Ildo horretan, arreta berezia merezi du Artziniegako guneak, Bilbao Metropolitarrarekiko hurbiltasuna, bigarren bizitegiko parke handia eta datozen urteotan egingo diren Kadaguako korridorearekiko konexio-hobekuntzak kontuan hartuta. Helburu horrekin, dentsitate ertaineko/txikiko bizitegi-hazkundea garatuko da gaur egungo gunearen aldamenean.

4.2. Okondoko gune nagusia, irisgarritasun handia eta biztanle-dentsitate handieneko eremuekiko kokapen egokia kontuan hartuta, bizitegi-hazkundeko eragiketa zabalagoetarako harreragune gisa konfiguratzen da.

5. Gainerako landagune txikietan hazkunde-dinamika apalagoa ahalbidetuko da, etxebizitzak birgaitzean eta bigarren bizitegiaren garapenean oinarritua batik bat.

6. Natura-interes handieneko espazioetatik hurbil dauden gune txikiak lurralderako sarreragune gisa egokitzeko eragiketa pilotuak garatuko dira. Horretarako, aparkalekuak eta bisitariak hartzeko instalazioak ezarriko dira eta turismo-zerbitzuak kokatzea sustatuko da.

31. artikulua. Jarduera ekonomikoetarako lurzorua.

1. Irizpide orokor gisa, jarduera ekonomikoetarako lurzorua garatzeko ekintzak bertako eskaria asetzen dela bermatzera zuzenduko dira eta Bilbao Metropolitarreko eskualde-egituratik bideratzen den kanpoko eskaintzaren zati bat bereganatzeko lurzoru-eskaintza berriak egingo dira.

2. Llodioko kasuan, industria-eremu zaharkituak birmoldatzeko prozesuak sustatzera zuzendutako berariazko hirigintza-politika garatuko da. Esparru horietan erabilera globala mantentzearen alde egiten duten aldaketa-prozesuak bultzatuko dira, eta erabilera hori formatu ertaineko merkataritza-zentroak, bulego-eraikinak, enpresa-hotelak eta eskualdeko eta tokiko ekipamenduak ezartzera bideratuko da.

3. Llodio, Amurrio eta Aiarako udalerriek lehentasunezko interesa izango dute jarduera ekonomikoetarako lurzorua hirigintza-arloan sustatzeko eta antolatzeko. Udalerri horietan, finkatutako lurzoruak hobetzea, zaharkitutako industria-eremuak birmoldatzea, okupatu gabeko industria-kalifikazioa duten lurzoruak garatzea eta gaur egun dauden poligonoak sustatzea bere baitan hartuko dituen jarduera ekonomikoetarako lurzoruak antolatzeko, kudeatzeko eta hirigintza arloan sustatzeko politika garatuko da.

4. Horrez gain, jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa sortuko da. Ildo horretan, Lurraldearen Zatiko Planak jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko bi eragiketa garatu beharra ezartzen du:

a. Llodioko eskualdeko industrialde berria, 10 eta 25 hektarea arteko azalerakoa. Hirigunearen hegoaldean, A-625 saihesbidearen eta trenbidearen artean, kokatzea proposatzen da.

b. Amurrio-Aiara esparruan eskualde-mailako beste poligono bat garatzea. Lehentasunez Amurrio Iparraldea-Aiara esparruan kokatzea proposatzen da. Planaren indarraldian premiei erantzuteko 25 eta 50 hektarea arteko azalera ezartzen da, sekuentzialki garatuz gaur egungo Murgako poligonoaren jarduerekin eta garapenarekin bateragarri.

5. Arakaldo, Artziniega, Urduña-Orduña eta Orozkoko udalerrietan jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren neurrizko hazkundea hartzen da aintzat. Udalerri horietako plangintzan ez da jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarriko sektore gehiago ezarriko, pizgarri gisako ekimen publikoetarako lurzoruak edo bertako eskari berriei aurre egiteko lurzoruak izan ezik. Gaur egun dauden lurzoruak finkatzeko politika diseinatuko da eta lurzoru horietan gaur egungo urbanizazioak hobetzeko eta akabera egokia emateko lehentasunezko ekintzak bideratuko dira.

6. Okondo jarduera ekonomikoetarako lurzoruen garapen txikiko udalerritzat jotzen da. Jarduera ekonomikoetarako lurzorua udalerri barruko eskariaren arabera birdimentsionatzea izango da irizpidea.

7. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren etorkizuneko eskari posiblea 16 urteko horizontean estali ahal izateko, komenigarritzat jotzen da eskualde-egituran 165/225 hektarea inguruko lurzoru bideragarri eta erabilgarriko eskaintza aurreikustea (plangintzak dagoeneko kalifikatutako lurzoru huts bideragarria barne), aurreikus daitekeen eskari handienaren gaineko 1,5 eta 2 bitarteko astintasun-indizea kontuan hartuta. Baldintza horietan, eta 41. artikulu honen 4. puntuan Llodio, Amurrio eta Aiararako proposatutako jardunak izan ezik, gainerako udalerrietan gaur egun jarduera ekonomikoetarako kalifikatuta dagoen azalera mantentzea eta hutsik dauden lurzoruak pixkanaka okupatzea izango da irizpidea.

8. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kalifikazio berriak edo erabilera-aldaketak sustatzen dituzten plangintza orokorra berrikusteko edo puntualki aldatzeko prozesuei dagokienez, honako alderdi hauek bete beharko dira:

a. Planteatutako hirigintza-eragiketa berriaren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta kudeaketari dagokiona aldez aurretik justifikatzea.

b. Industria-lurzorua edo jarduera ekonomikoetarako lurzorua hirigintza arloan bizitegi edo zuzkidurako lurzoru gisa birkalifikatzeko prozesu berriak izapidetzeko, horrekin batera hiri-plangintzan jarduera ekonomikoetarako lurzoru berriko azalera baliokidea gehitzea exijitu behar da, udalerriaren esparruan edo eskualde-egituran kokatua eta aurreko puntuko bideragarritasun-baldintzen arabera.

9. Aprobetxamendu-parametroen eta zuzkidura-estandarren sistematizazioari dagokionez, jarduera ekonomikoetarako lurzoruetan nahitaez betetzeko ratioak izango dira:

a. Gutxienez sektoreko guztizko azalera gordinaren %15 erreserbatzea espazio libreen eta ekipamenduen tokiko zuzkidura publikoetarako.

b. Gehienezko eraikuntza-aprobetxamendua oinplanoko gehienezko azalera-okupazioaren %65ekoa eta gehienezko sabai-azalera eraikigarriaren %95ekoa izango da, sektorearen plangintza partzialean lursail eraikigarri gisa konfiguratutako plataforma horizontal guztien azalera garbiari dagokionez.

c. Interes publiko eta sozialeko zerbitzuetarako gutxieneko eraikuntza-zuzkidura sabai-azalera eraikigarriaren %3koa izango da, eta titulartasun publiko zein pribatuko enpresen zerbitzurako zuzkidura-ekipamendura (bulegoak, ostalaritza, enpresa osagarriak...) zuzenduko da.

d. Gutxieneko aparkaleku-zuzkidura sabai eraikiko 100 m²-ko plaza batekoa izango da. Gutxienez plazen %20 sarbide publikoko bide-sarean ezarriko dira.

32. artikulua. Babes ofizialeko etxebizitzen eskaintza.

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legean ezarritakoaren arabera, Lurraldearen Zatiko Planak honako kokapen eta dimentsionamendu irizpide hauek finkatzen ditu hurrengo 16 urteetarako, sustapen publiko zein pribatuko babes ofizialeko etxebizitzak edo etorkizunean berariazko arautzearen bitartez azken prezioa muga lekiekeen edonolakoak eraikitzeko erreserbatu behar diren lurzoruen (gaur egun horretarako kalifikatutako lurzoru libreak barne) kuantifikazioari buruz:

| **Udalerria** | **Proposatutako BOE** | **Kalifikatutako BOE (2000ko urt.)** | **Kalifikatzeko premiak** |
|---|---|---|---|
| Amurrio | 1000 | 756 | 244 |
| Llodio | 480 | 247 | 233 |
| Urduña-Orduña | 210 | 0 | 210 |
| Orozko | 135 | 87 | 48 |
| GUZTIRA | 1825 | 1090 | 735 |

Etxebizitzen sustapen publikorako jardunak aplikatzekoak izango dira eta balio loteslea izango dute, Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean berraztertzearen kaltetan izan gabe.

33. artikulua. Bizitegi-lurzoruaren eskaintzaren kuantifikazioa eta bigarren bizitegia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen arabera, Lurraldearen Zatiko Planak udalerri bakoitzari dagokion bizitegi-lurzoruaren eskaintzaren kuantifikazioa ezartzen du. Kuantifikazio hori honako esanahi hau duen balio-tartea ezarriz egiten da:

a. Plangintzako bizitegi-ahalmenerako gehienezko balioa: Lurzoruaren gainkalifikazioaren ondorioz antolatu gabeko hiri-garapenak ez sortzeko udal-plangintzari ematen zaion balioa.

b. Plangintzako bizitegi-ahalmenerako gutxieneko balioa: Kalifikatutako lurzoru gutxiegi egotea saihesteko plangintzari ematen zaion balioa.

1. Lurraldearen Zatiko Planaren indarraldia luzea denez gero (16 urte), gehienezko eta gutxieneko balioen artean zabaltzen den tartea edo aukera udalerri bakoitzeko datu estatistikoen arabera aplikatuko da, plangintza berraztertzeko dokumentua idazten den unean.

2. Eskualde-egiturako udalerrietako bizitegi-eskaintzaren kuantifikazioa:
“Gehienezko eta gutxieneko balioak Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen irizpideak abiapuntutzat hartuta eta Lurraldearen Zatiko Planak egokituta lortuko dira, honela:

- Plangintzaren bizitegi-ahalmena, osagaien baturaren arabera lortua:

(1) Lurralde-ereduaren inplikazioak (C1 osagaia): Etxebizitza-kopurua, berez espero zitekeena baino handiagoa, Lurraldearen Zatiko Planak udalerri batzuei selektiboki esleitzen diena ereduaren arabera. Lurralde-ereduaren arabera, ondokoak hartuko dira udalerri bereizitzat eta jasotzen den tamainan:

| Udalerria | Gehienezko balioa | Gutxieneko balioa |
|---|---|---|
| Amurrio | 500 etxebizitza | 250 etxebizitza |
| Urduña-Orduña | 250 etxebizitza | 125 etxebizitza |

Plangintza berraztertzeko prozesuan, adierazitako balioak Lurraldearen Zatiko Planaren indarraldirako planteatzen direnez gero (16 urte), kopuruaren %75 baino ez da erabiliko.

(2) Hazkunde demografikoa (C2 osagaia): Etxebizitza-premia, udalerrian identifikatutako joera demografikoaren estrapolazioan oinarrituta kalkulatua, azken hamarkadako (edo aztergai dugun kasurako adierazgarriagotzat jo litekeen beste denboraldi batekoa) Urteko Hazkunde Tasaren (UHT) arabera.

(3) Familia-egituraren aldakuntza (C3 osagaia): Familia-egituran aurreikus litezkeen aldakuntzei lotutako etxebizitza-kopurua, proiekzioaren horizonte-urterako estimatutako familia-unitatearen batez besteko tamaina (FBT) abiapuntutzat hartuta kalkulatua.

(4) Eskaintzaren zurruntasunaren zuzenketa (C4 osagaia): Higiezinen merkatuan sortzen diren espekulazio-tentsioak eta distortsioak konpontzeko behar den etxebizitza-eskaintzaren eta antzemandako eskariaren arteko maiorazioaren ondoriozko etxebizitza-premia:

Kalkuluan erabili beharreko zurruntasun-koefizienterako (ZK) honako tarte hau ezartzen da:

(a) Gehienezko balioa: Artezpideetako ZK.

(b) Gutxieneko balioa: Artezpideetako ZK balioaren erdia.

Horren emaitza dira eskualde-egiturako udalerrietarako honako koefiziente partikularizatu hauek:

| Udalerria | Gehienezko ZK | Gutxieneko ZK |
|---|---|---|
| Amurrio | 0,25 | 0,125 |
| Arakaldo | 0,35 | 0,175 |
| Artziniega | 0,35 | 0,175 |
| Aiara | 0,35 | 0,175 |
| Llodio | 0,20 | 0,10 |
| Okondo | 0,35 | 0,175 |
| Urduña-Orduña | 0,25 | 0,125 |
| Orozko | 0,35 | 0,175 |

(5) Bigarren bizitegia (C5 osagaia): Bigarren bizitegiari loturiko udalerri batzuen berezitasuna islatzen duen etxebizitza-kopurua.

Eskualde-egiturako udalerrietarako kalkulu partikularizatuan erabili beharreko bigarren bizitegiko koefizientea (BBK) honako hau da:

| **Udalerria** | **BBK** |
|---|---|
| Amurrio | 1 |
| Arakaldo | 1 |
| Artziniega | 3 |
| Aiara | 2 |
| Llodio | 1 |
| Okondo | 2 |
| Urduña-Orduña | 1 |
| Orozko | 2 |

(6) Osagai horiek araudi honen 2. eranskinean bildutako bizitegi-lurzoruaren eskaintza kuantifikatzeko kalkulu-orrian aplikatuko dira". Kalkulu-orri hau jasota dago araudi honen bukaeran batera doan artikulu honi dagokion eranskinean.

3. Planteatutako ahalmena hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian, programatuan edo sektorizatuan, kokatuko da. Gehienezko balioaren gainetik, bizitegi-ahalmen gehigarria lurzoru urbanizagarri programatu edo sektorizatu gabean kokatuko da.

4. Kalkuluaren emaitzazko bizitegi-ahalmena gune nagusian eta/edo hirigintza-garapena planteatzen den lehendik dauden guneetan edo gune sortu berrietan kokatuko da.

5. Lehendik zeuden gainerako gune txikietan, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideekin bat datorren hazkundea onartuko da, mugatzat %100 izango duena, plangintza orokorraren berrikuspena idazterakoan edo Lurraldearen Zatiko Plan honetara egokitzerakoan dagoen etxebizitza-kopuruaren gainean kalkulatua.

6. Aurretik adierazitako guzti horretatik kanpo daude plangintza orokorrak landaguneko lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen dituen guneak, lurraren araubide eta hiri antolaketaren arloko presako neurriak zehazteari buruzko maiatzaren 6ko 5/98 Legean adierazitakoari jarraituko baitiote.

7. Hirigintza-garapenik gabeko gune txikietan hirigintza-antolamenduak kontuan hartu beharko dituen irizpideak, printzipioak eta arauak.

7.1. Orokorrean bilbe unitarioa duten guneak dira, eta 43. artikulu honen 5. puntuan adierazitakoa da beren gehienezko hazkundearen kuantifikazioa.

7.2. Hirigintza-antolamenduak honako irizpide, printzipio eta arau hauek hartu beharko ditu kontuan:

a. Orokorrak

a.1. Lehendik dauden osatu gabeko hiri-bilbeak bukatu eta finkatzeko joera izango du plangintzak.

a.2. Plangintza espazio publikoak sortzera eta/edo indartzera zuzenduko da, bereziki zentraltasun eta/edo adierazgarritasun handiagoa duten horiek.

a.3. Plangintzak gunearen morfologia aldaraziko ez duten egiturak eta tipologiak hartu beharko ditu, lursail-banaketa errespetatuz batik bat.

a.4. Eraikuntzen altuera ingurunean dagoen neurrira egokituko da, funtzionaltasunaren arabera erabilera berezi batzuek egin ahal izango dituzten berariazko eskakizunen kasuan izan ezik, betiere garapen berriarekin eta aurretik daudenekin bateragarriak izanik.

b. Lurzoru urbanizagarriko bereziak:

b.1. 5. atalean baimendutako hazkundea lurzoru urbanizagarriaren lursail hutsetan gauzatu ezin bada, gainerakoa lurzoru urbanizagarrian kokatuko da, betiere:

b.1.1. Lurrak ez badaude Lurzoruaren Erregimenari eta Balorazioei buruzko 6/98 Legearen 9. artikuluak aipatzen dituen balioengatik zaindu beharrekoa den lurzoruan. Bestela, beste interes publiko batzuen gaineko lehentasuna justifikatzen duen jardunaren interes publikoa frogatuz, aipatutako artikuluaren 1. paragrafoan aurreikusitako zirkunstantziak biltzen ez dituzten landa-lurrak lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu ahal izango dira.

b.1.2. Jardunek autonomia teknikoa eta finantzarioa badute. Horri dagokionez, plangintza orokorrak sektore etenak mugatu ahal izango ditu gune bakoitzean eta, hirigintza arloko legeriak eskatutako estandar guztiak betez, hainbat sektoreri zuzkidura komunak proposatu ahal izango dizkie.

b.1.3. Orain dauden hiri-zerbitzuen ahalmenak edo erabil daitezkeen erreserben potentzialtasunak proiektatutako erabileren kopuruak sorrarazitako eskariei erantzutea ahalbidetzen badu.

b.2. Bide-egitura berriak hazkunde berriak orain dagoen hiri-ehunaren funtzionaltasunaren kaltetan izan gabe ahalbidetuko du garapen berriak oinarritzea. Ildo horretan, bide-sarearen luzapen automatikoa saihestu beharko da, bereziki kokagunearen jatorrizko antolamenduaren emaitza den eta ahalmen urria eta landa-izaera nabarmena duten egiturei erantzuten dien kasuan.

b.3. Zentzu horretan, hasiera batean, hazkunde berriak bide nagusietako batzuen luzapenean bakarrik oinarrituz antolatuko dira, edota eten-elementu gisa eta era berean lehendik dagoen sarearen eta berriaren arteko egituraketa-elementu gisa zerrenda berde bat edo zuzkidura-zerrenda bat erabiliz. Hala eta guztiz ere, plangintza orokorrak irizpide honetatik aldentzeko aukera izango du gunearen irudia eta morfologia errespetatzen dituela eta gunearekiko behar bezala egituratzen dela ziurtatzen badu.

b.4. Sistema orokorrekiko eta gune tradizionalaren bereizgarri diren espazio publikoekiko konexioak behar bezala ebatziko dira.

b.5. Plangintza orokorrak lurzoru horretako zuzkiduren oinarrizko sarea adieraziko du, orain dagoenarekiko koherentzia bermatzearren. Horregatik, espazio komunitarioek hiri-bilbearen leku nabarmenenak okupatu beharko dituzte.

b.6. Plangintza orokorrak nahiz garapenaren plangintzak hornikuntza marjinalak edo hondakin-hornikuntzak saihestuko dituzte, beren kokapena, dimentsioa edo forma dela-eta.

b.7. Sektoreetako mugen trazadura hirigintzako irizpideak kontuan hartuta egingo da; inoiz ez da udalerriaren mugetara edo jabegoen mugetara egokitzeko asmoarekin zehaztuko, plangintzak trazadura hori helburu zehatzetarako eta plangintzaren ahalmen publikoarekin eta biztanleriaren etorkizuneko ongizatearekin bat datozen helburuetarako egin dela ziurtatzen ez badu behintzat.

8. Garrantzi txikiko bizitegigune berri bakartuetan hirigintza-antolamenduak kontuan hartu beharko dituen irizpideak, printzipioak eta arauak.

8.1. Irizpide hauek kokaguneen sistema nagusiaren berezitasuna indartzea dute helburu. Kokaguneen sistemaren kalitate nabarmenak herrigune bakartu gisa eratutako bizitegi-espazioak sortzeko aukera arautzea gomendatzen du, natura- eta nekazaritza-paisaian txertatuta. Zalantzarik gabe, jatorrizko kokaguneen sistemak funtsezko bi baldintzei erantzuten zien: topografia eta hiriguneen eta haien euskarri ziren lur produktiboen arteko oreka-

harremana. Nahiz eta gaur egun gune berriek jadanik laborantzako eremuekin zuzeneko harremana izan lezaketen ala ez, nekazaritzako paisaia eta habitat horretako oreka berezia (beteak/hutsak; hiri/landa integrazioa) mantentzeko asmoak lehendik dauden herrietatik beren entitatea eta ingurunearekin duten harremana “kopiatzea” ahalbidetuko luke.

8.2. Esku-hartze horien ohiz kanpoko izaera kontuan izanik, horien guztien gehienezko bizitegi-ahalmenak, gune bakoitzeko gutxienez 25 etxebizitzarekin, ezingo du gainditu plangintza orokorraren indarraldian zehar udalerri bakoitzean aurreikusiko den gehienezkoaren %10.

8.3. Halako guneen sorkuntza udalerriaren azterketa orokorra egin ondoren bakarrik burutu ahal izango da, baita udal-estrategien definizioaren bidez ere plangintza orokorra Lurraldearen Zatiko Planera egokituz edo berau berrikusiz. Udalaren hirigintza-politikaren helburuak gaur egun dauden guneei erantsitako hazkundeen bitartez lortu ezin direnean eta, gainera, honako bi baldintza hauek biltzen direnean bakarrik garatu ahal izango dira:

> a.1. Nekazaritza edo abeltzaintzako produktibitate txikiko lurzoruetan eta/edo 6/98 Legearen 9. artikuluan adierazitako balioak ez dituztenetan kokatzen direnean. Ondorio horietarako, Nekazaritza eta Basozaintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarekin koordinatu beharko dira.
>
> a.2. Orain dauden hiri-zerbitzuen ahalmenak edo erabil daitezkeen erreserben potentzialtasunak proiektatutako erabileren kopuruak sorrarazitako eskariei erantzutea ahalbidetzen badu.

8.4. Jardun bakoitzak bere kontura bermatu eta konpondu beharko ditu hazkunde edo kokagune bakoitzetik sortutako biztanleriari eta garapenari buruzko aurreikuspenak garatzeko behar diren sistema orokorrak, baita udalerriko gainerako sistema orokorrekiko konexioa ere.

8.5. Halako kokagune-motaren ezarpenak oinarrizko bi gai betetzea izango du baldintzatzat:

> a.1. Toki-mailako bideen gainean kokatzea, lehendik daudenak edo proposatutakoak izan arren.
>
> a.2. Beste edozein hirigunetatik gutxienez 500 metrora egotea, bere entitatea edozein izanik ere, ezartzen deneko ingurunearen nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera iraunarazten dela bermatuz, habitat horren izaerari dagokionez erabakigarria izanik.

8.6. Gune bakoitzak egungo kokaguneen antzeko neurriak izango ditu, eta ezingo du 25 etxebizitza baino txikiagoa eta 50 etxebizitza baino handiagoa izan. Dentsitatea 15 etx./ha eta 30 etx./ha artekoa izango da. Hirigintzako jarduera unitarioa proiektu arkitektonikoarekin lotura estua izango duen garapen xehatu bati lotuta egongo da.

8.7. Guneetako mugen trazadura hirigintzako irizpideak kontuan hartuta egingo da; inoiz ez da udalerriaren mugetara edo jabegoen mugetara egokitzeko asmoarekin zehaztuko, plangintzak trazadura hori helburu zehatzetarako eta plangintzaren ahalmen publikoarekin eta biztanleriaren etorkizuneko ongizatearekin bat datozen helburuetarako egin dela ziurtatzen ez badu behintzat.

8.8. Bizitegi-espazioa gunearen muin gisako espazio komunitario baten inguruan antolatuko da, esleitu ahal izango zaion berariazko xedetik harantz. Plazak, dendek, liburutegiak, frontoiak... biztanleen eta beste herri batzuetako bizilagunen arteko topalekua adierazi behar dute.

8.9. Plangintza orokorrak zuzkidura marjinalak edo hondar-zuzkidurak saihestuko ditu, beren kokapena, dimentsioa edo forma dela-eta.

8.10. Eraikinen tipologiek familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza bakartu edo parekatu trinko gisakoak izan behar dute, baita 3 edo 4 etxebizitzako familia anitzeko eraikin trinko gisakoak ere.

8.11. Kokagune berriek bizitegiarekin bateragarriak diren bestelako jarduera batzuk hartu ahal izango dituzte, batik bat industria garbia edo tertziarioa, erabilera horien ezarpenak multzoaren morfologia aldaraztea saihestuz.

8.12. Komenigarria izango litzateke eraikinek eraikuntza-lerroa osatzeko joera izatea, nolabaiteko jarraitutasun-eza antzemanda ere, eta betiere eraikinak lursailen parean kokatuz.

8.13. Dagozkien zuzkidura-erreserbak ez dira nahitaez gunearen barruan kokatu behar; izan ere, hasteko lurzoru-lagapenak hiri-ehun sortu berriekiko etenak izatea onar daiteke, hurbileko beste batzuetara eransteko aukerarekin. Gomendio gisa, egokitzat jotzen da lagapen horiek hurbileko inguruko hirigune tradizionaletako batean kontzentratzea, hirigune horien babes-neurri aktibo gisa, inplizituki beren balio sinbolikoa eta ondareari lotutakoa aintzatetsiz.

# BIGARREN TITULUA

## LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN LOTURA

34. artikulua. Arloko organismoen ekintza betearazlearekiko lotura.

Foru-organoek, autonomia-erkidegokoek eta arloko eskumenak dituzten administrazioek beren planak eta programak Lurraldearen Zatikako Planean aurreikusitakora egokituko dituzte, eta, dagokionean Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedurapean jarriko dira, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak dioen arabera.

35. artikulua. Hirigintza-antolamenduarekiko lotura.

Hirigintzako administrazio eskudunek aldaketa puntualak egiteko edo beren plangintza aztertzeko prozedurei hasiera emango diete, Lurraldearen Zatikako Planaren zehaztapen lotesleak gehitzeko beharrezkoak izango diren prozedurei, hain zuzen ere, eta dagokienean, plangintzaren aldaketa edo azterketa horiei ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura aplikatu behar zaienean, prozedura horren ondorio diren emaitzak eta eraginak gehitu beharko zaizkie (Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren arabera).

36. artikulua. Antolamendu orokorra.

Plangintza orokorrak udalerri bakoitzean garatu beharko ditu Lurraldearen Zatiko Plan honetan ezartzen diren zehaztapenak, proiektatutako lurralde-eredua konfiguratzen dutenak. Horretarako, lurraldea egituratzen duten errepide-proposamenak eta trenbide-proposamenak bilduko ditu, eta etxebizitzarako eta jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintzaren dimentsionamendu zehatza jasoko du, baita ekipamenduen, espazio libreen eta beste azpiegitura batzuen arloan lerrun horrekin ezarritako zuzkidurak ere. Eta hori guztia, plangintza-maila horri dagozkion proposamen guztien definizio osagarriaren kalterik gabe egingo du.

37. artikulua. Garapen berriak antolatzeko baldintza bereziak.

4. planoko bizitegi-garapen berrien lehentasunezko eremuen definizio grafikoa eta dentsitateen adierazpena udal-plangintzarako iradokizunak dira.

Udal-plangintza orokorrak 4. plano horretan aintzat hartzen ez diren jarduera ekonomikoetarako eta bizitegirako kokagune berrietara zuzendutako lehentasunezko eremuez kanpoko zona globalak mugatu ahal izango ditu plan honen 1. planoan definitutako baso-intereseko eremuetan, nekazaritza eta abeltzaintzako intereseko eremuetan, landazabalean eta/edo mendi-larreetan. Dena den, lehendik dauden guneetan oinarritzen diren eta horiekin zuzenean lotzen diren hirigintza-hazkundeen aurreikuspenera mugatuko da aukera hori, eta behar-beharrezkoa izango da bere komenigarritasuna eta egokitasuna behar bezala eta egoki justifikatzea.

38. artikulua. Eskualde-egiturako eraikuntza bakarturako baldintza orokorrak.

Lurzoru urbanizaezinean nekazaritza eta abeltzaintzako baliabideak ustiatzera lotuta daudela frogatzen duten etxebizitza bakartuak eraikitzea baino ez da baimenduko.

# 10 ARTIKULUAREN ERANSKINA

## BALDINTZA BEREZIAK DITUZTEN IBAI ESPARRUAK

**A. Ongi kontserbatutako landaredia**

Nerbioi ibaia

| | Hasierako k.p. | Amaierako k.p. | Zabalera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Ezkerraldea | 43+350 | 43+600 | 25 | |
| Eskuinaldea | 46+350 | 46+625 | 25 | |
| Eskuinaldea | 50+575 | 50+675 | 10 | |
| Eskuinaldea | 52+200 | 52+875 | 25 | |
| Eskuinaldea | 52+950 | 53+075 | 25 | |
| Eskuinaldea | 53+300 | 53+450 | 15 | |
| Eskuinaldea | 53+975 | 54+125 | 10 | |
| Eskuinaldea | 54+175 | 55+325 | 50 | |
| Eskuinaldea | 55+325 | 56+150 | 10 | |
| Eskuinaldea | 56+150 | 56+175 | 25 | |
| Ezkerraldea | 56+200 | 56+225 | 10 | |
| Eskuinaldea | 57+000 | 57+100 | 25 | |
| Eskuinaldea | 57+800 | 57+925 | 50 | |
| Eskuinaldea | 58+325 | 58+375 | 50 | |
| Eskuinaldea | 62+825 | 62+925 | 10 | |
| Eskuinaldea | 63+750 | 63+775 | 10 | |
| Ezkerraldea | 64+100 | 65+050 | 50 | |
| Ezkerraldea | 64+100 | 67+050 | 100 | |
| Ezkerraldea | 65+100 | 65+225 | 10 | |
| Eskuinaldea | 65+325 | 65+875 | 50 | |
| Eskuinaldea | 65+900 | 66+000 | 25 | |
| Eskuinaldea | 66+250 | 66+300 | 25 | |

Altube ibaia

| | Hasierako k.p. | Amaierako k.p. | Zabalera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Ezkerraldea | 0+500 | 0+500 | 10 | |
| Ezkerraldea | 0+600 | 0+625 | 10 | |
| Eskuinaldea | 1+000 | 1+175 | 10 | |
| Ezkerraldea | 1+025 | 1+150 | 10 | |
| Eskuinaldea | 1+275 | 1+425 | 25 | |
| Ezkerraldea | 1+350 | 1+400 | 10 | |
| Eskuinaldea | 1+700 | 2+500 | 25 | |
| Ezkerraldea | 1+725 | 2+875 | 10 | |
| Eskuinaldea | 3+250 | 3+275 | 10 | |
| Eskuinaldea | 3+550 | 3+950 | 10 | |
| Eskuinaldea | 3+575 | 3+750 | 25 | |
| Ezkerraldea | 3+700 | 3+800 | 10 | |
| Eskuinaldea | 3+950 | 4+000 | 50 | |
| Eskuinaldea | 4+000 | 4+225 | 10 | |
| Eskuinaldea | 4+375 | 4+400 | 50 | |
| Eskuinaldea | 4+375 | 5+450 | 10 | |
| Ezkerraldea | 4+600 | 4+950 | 10 | |
| Ezkerraldea | 5+025 | 5+400 | 10 | |
| Eskuinaldea | 5+075 | 5+125 | 25 | |
| Eskuinaldea | 5+925 | 6+025 | 10 | |
| Eskuinaldea | 6+025 | 6+150 | 10 | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eskuinaldea | 6+350 | 6+550 | 10 | |
| Eskuinaldea | 6+550 | 6+825 | 10 | |
| Ezkerraldea | 6+650 | 6+950 | 10 | |
| Eskuinaldea | 6+825 | 6+925 | 50 | |
| Eskuinaldea | 7+000 | 7+200 | 10 | |
| Ezkerraldea | 7+000 | 7+425 | 10 | |
| Eskuinaldea | 7+200 | 7+275 | 25 | |
| Eskuinaldea | 7+275 | 7+525 | 10 | |
| Eskuinaldea | 7+575 | 7+750 | 25 | |
| Eskuinaldea | 7+975 | 8+525 | 10 | |
| Ezkerraldea | 8+125 | 8+525 | 10 | |
| Eskuinaldea | 8+775 | 8+825 | 10 | |
| Ezkerraldea | 8+800 | 9+000 | 10 | |
| Ezkerraldea | 8+950 | 9+100 | 100 | |
| Eskuinaldea | 9+075 | 9+325 | 10 | |
| Ezkerraldea | 9+375 | 9+425 | 10 | |
| Eskuinaldea | 9+375 | 9+425 | 10 | |
| Ezkerraldea | 9+625 | 9+725 | 10 | |
| Eskuinaldea | 9+675 | 10+00 | 25 | |

Arnauri ibaia

| | Hasierako k.p. | Amaierako k.p. | Zabalera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Eskuinaldea | 0+000 | 0+700 | 10 | |
| Ezkerraldea | - | - | - | |
| Eskuinaldea | 0+700 | 1+575 | 10 | |
| Ezkerraldea | 0+700 | 1+675 | 10 | |
| Eskuinaldea | 1+950 | 2+000 | 10 | |
| Eskuinaldea | 2+050 | 2+175 | 10 | |
| Ezkerraldea | - | - | - | |
| Eskuinaldea | 2+525 | 2+725 | 10 | |
| Eskuinaldea | 2+750 | 3+000 | 10 | |
| Ezkerraldea | 2+750 | 2+800 | 10 | |
| Ezkerraldea | 2+825 | 3+000 | 25 | |

Herrerias ibaia

| | Hasierako k.p. | Amaierako k.p. | Zabalera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Eskuinaldea | 10+750 | 10+850 | 50 | |
| Eskuinaldea | 11+100 | 11+500 | 10 | |
| Ezkerraldea | 11+500 | 11+650 | 10 | |
| Eskuinaldea | 12+250 | 12+450 | 50 | |
| Eskuinaldea | 12+600 | 12+750 | 10 | |
| Eskuinaldea | 13+200 | 14+100 | 10 | |
| Eskuinaldea | 13+250 | 13+350 | 40 | |
| Eskuinaldea | 14+100 | 14+250 | 10 | |
| Eskuinaldea | 14+250 | 15+500 | 10 | |
| Eskuinaldea | 15+000 | 15+075 | 40 | |
| Ezkerraldea | 15+200 | 15+300 | 10 | |
| Eskuinaldea | 15+625 | 16+000 | 50 | |
| Eskuinaldea | 15+675 | 16+000 | 10 | |

Izalde ibaia

| | Hasierako k.p. | Amaierako k.p. | Zabalera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Eskuinaldea | 1+500 | 1+600 | 10 | |
| Ezkerraldea | 1+650 | 1+750 | 10 | |
| Ezkerraldea | 3+600 | 4+000 | 10 | |
| Ezkerraldea | 3+700 | 3+900 | 40 | |
| Eskuinaldea | 4+075 | 5+700 | 10 | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ezkerraldea | 4+250 | 4+700 | 25 |
| Eskuinaldea | 4+950 | 5+100 | 40 |
| Ezkerraldea | 6+500 | 6+950 | 10 |
| Ezkerraldea | 6+625 | 6+700 | 40 |
| Eskuinaldea | 6+700 | 7+050 | 10 |
| Ezkerraldea | 7+050 | 8+100 | 10 |
| Eskuinaldea | 7+100 | 8+250 | 10 |
| Ezkerraldea | 8+100 | 8+450 | 10 |
| Ezkerraldea | 8+550 | 8+700 | 10 |
| Eskuinaldea | 8+700 | 9+000 | 10 |
| Eskuinaldea | 8+800 | 9+100 | 10 |
| Ezkerraldea | 9+250 | 9+300 | 10 |
| Eskuinaldea | 9+600 | 9+800 | 30 |
| Eskuinaldea | 10+250 | 10+350 | 10 |
| Eskuinaldea | 10+850 | 10+950 | 10 |
| Eskuinaldea | 11+100 | 11+350 | 10 |
| Ezkerraldea | 11+350 | 11+600 | 10 |
| Eskuinaldea | 11+450 | 11+900 | 10 |
| Eskuinaldea | 11+700 | 12+000 | 40 |

**B. Arriskuak**

Nerbioi ibaia

| | Hasierako k.p. | Amaierako k.p. | Zabalera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Ezkerraldea | 64+100 | 65+050 | 100 | Hegalen ezegonkortasuna |
| Eskuinaldea - ezkerraldea | 64+275 | 67+050 | 100 | Urrakortasun handia edo oso handia |

Altube ibaia

| | Hasierako k.p. | Amaierako k.p. | Zabalera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Eskuinaldea | 7+525 | 7+575 | 25 | Hegalen ezegonkortasuna |

Izalde ibaia

| | Hasierako k.p. | Amaierako k.p. | Zabalera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Ezkerraldea | 11+100 | 12+000 | 100 | Hegalen lerradurak |
| Eskuinaldea | 11+200 | 12+000 | 100 | Hegalen lerradurak |

**C. Lehengoratzea**

Nerbioi ibaia

| | Hasierako k.p. | Amaierako k.p. | Zabalera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Ezkerraldea | 44+250 | 45+000 | 10 | |
| Eskuinaldea | 49+725 | 50+500 | 10 | |
| Ezkerraldea | 49+725 | 55+000 | 10 | |
| Eskuinaldea | 50+675 | 52+200 | 10 | |
| Eskuinaldea | 53+075 | 53+975 | 10 | |
| Eskuinaldea | 55+600 | 56+025 | 15 | Ibaiari erantsitako lubeta, lur-berdinketa handiari dagokiona |
| Eskuinaldea | 56+300 | 56+925 | 10 | |
| Ezkerraldea | - | - | - | |
| Eskuinaldea | 57+475 | 57+800 | 10 | |
| Eskuinaldea | 57+925 | 58+000 | 50 | Hondakindegia |
| Eskuinaldea | 58+000 | 58+325 | 10 | |
| Eskuinaldea | 58+375 | 59+575 | 10 | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eskuinaldea | 59+925 | 60+025 | 10 | |
| Ezkerraldea | 60+350 | 60+450 | 25 | Hondakindegia |
| Eskuinaldea | 60+600 | 60+675 | 10 | |
| Ezkerraldea | 60+750 | 61+350 | 10 | |
| Eskuinaldea | 60+825 | 61+650 | 10 | Atseden-eremua |
| Eskuinaldea | 62+375 | 62+925 | 10 | |
| Ezkerraldea | 62+925 | 63+000 | 50 | Hondakindegia |
| Ezkerraldea | 63+000 | 63+750 | 10 | |
| Eskuinaldea | 63+175 | 63+475 | 10 | |
| Eskuinaldea | 63+900 | 64+100 | 10 | |
| Eskuinaldea | 65+325 | 65+625 | 10 | |
| Ezkerraldea | - | - | - | |
| Eskuinaldea | 66+000 | 66+250 | 10 | |
| Eskuinaldea | 67+300 | 70+000 | 10 | |
| Ezkerraldea | 67+000 | 70+000 | 10 | |

Altube ibaia

| | Hasierako k.p. | Amaierako k.p. | Zabalera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Eskuinaldea | 0+550 | 1+000 | 10 | |
| Ezkerraldea | 0+625 | 1+025 | 10 | |
| Ezkerraldea | 1+225 | 1+350 | 10 | |
| Ezkerraldea | 1+400 | 1+600 | 10 | |
| Eskuinaldea | 1+425 | 1+700 | 10 | |
| Ezkerraldea | 1+725 | 2+325 | 15 | |
| Eskuinaldea | 2+500 | 3+250 | 10 | |
| Ezkerraldea | 2+925 | 3+700 | 10 | |
| Eskuinaldea | 3+275 | 3+550 | 10 | |
| Ezkerraldea | 4+300 | 4+500 | 10 | |

| | Hasierako k.p. | Amaierako k.p. | Zabalera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Eskuinaldea | 5+500 | 5+650 | 10 | Kirol-eremua |
| Ezkerraldea | 6+475 | 6+650 | 10 | Sahatsak eta arte batzuk birsortzea |
| Ezkerraldea | 6+950 | 7+000 | 10 | Zabortegi kontrolatu gabea |
| Eskuinaldea | 7+825 | 7+975 | 10 | |
| Ezkerraldea | 9+475 | 9+625 | 10 | |
| Eskuinaldea | 9+500 | 9+675 | 10 | |

Arnauri ibaia

| | Hasierako k.p. | Amaierako k.p. | Zabalera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Ezkerraldea | 2+425 | 2+525 | 10 | |

Herrerias ibaia

| | Hasierako k.p. | Amaierako k.p. | Zabalera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Eskuinaldea | 10+050 | 10+750 | 10 | Harizti baso mistoa |
| Eskuinaldea | 11+850 | 12+250 | 10 | Lizardiak |
| Ezkerraldea | 11+850 | 11+925 | 10 | Lizardiak |
| Eskuinaldea | 12+500 | 12+600 | 10 | Lizardiak |
| Eskuinaldea | 12+750 | 13+200 | 10 | Lizardiak - Zumardia |

Izalde ibaia

| | Hasierako k.p. | Amaierako k.p. | Zabalera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| Eskuinaldea | 0+600 | 1+500 | 10 | Haltzadi kantauriarra |
| Eskuinaldea | 2+000 | 3+650 | 10 | Haltzadi kantauriarra |
| Ezkerraldea | 2+000 | 2+900 | 50 | Haltzadi kantauriarra |
| Ezkerraldea | 2+150 | 2+400 | 50 | Hondakindegia |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ezkerraldea | 2+900 | 3+150 | 50 | Harizti baso mistoa |
| Eskuinaldea | 3+650 | 3+950 | 10 | Harizti baso mistoa |
| Ezkerraldea | 4+700 | 4+800 | 10 | Haltzadi kantauriarra |
| Ezkerraldea | 5+000 | 6+000 | 10 | Haltzadi kantauriarra |
| Eskuinaldea | 5+850 | 6+100 | 10 | Haltzadi kantauriarra |
| Ezkerraldea | 6+350 | 6+625 | 40 | Harizti baso mistoa |
| Eskuinaldea | 6+400 | 6+700 | 10 | Haltzadi kantauriarra |
| Eskuinaldea | 6+800 | 6+950 | 90 | Hondakindegia |
| Ezkerraldea | 7+000 | 7+100 | 40 | Hondakindegia |
| Eskuinaldea | 8+250 | 8+300 | 10 | Harizti baso mistoa |
| Eskuinaldea | 9+000 | 9+100 | 10 | Harizti baso mistoa |
| Eskuinaldea | 9+200 | 9+600 | 10 | Harizti baso mistoa |
| Eskuinaldea | 9+800 | 9+900 | 10 | Harizti baso mistoa |
| Eskuinaldea | 10+050 | 10+250 | 10 | Haltzadi kantauriarra |

# 33. ARTIKULUAREN ERANSKINA

## BIZITEGI LURZORUAREN ESKAINTZAREN KUANTIFIKAZIOA

***CUANTIFICACION DE LA OFERTA DE SUELO RESIDENCIAL***

EGOITZA-LURZORUKO ESKAINTZAREN KOANTIFIKAZIOA

| Componente 1. IMPLICACIONES DEL MODELO TERRITORIAL<br>1.osagaia. LURRALDE-EREDUAREN INPLIKAZIOAK | |
|---|---|
| Crecimiento por Implicaciones del Modelo / *Eredu Inplikazioengatik Hazkundea* | |
| Total Componente 1/*Guztira 1.osagaia* | |

| Componente 2. CRECIMIENTO DEMOGRAFICO<br>2.osagaia. HAZKUNDE DEMOGRAFIKOA | | | |
|---|---|---|---|
| VOB / *OEO* = | | | |
| PB / *PO* = | P (2001) / *P (2001)* = | P (1991) / *P(1991)* = | TMF(n) / *FBT (n)* = |
| PH = PB $(1+TAC)^n$ =<br>*PH = PO* $(1+UHT)^n$ = | | CD = PH – PB =<br>*HD = PH – OP =* | |
| Necesidad de Viviendas CD/TMF(n) =<br>*Etxebizitzen Beharizana HD / FBT(n) =* | | | |
| Total Componente 2 / *Guztira 2. osagaia* | | | |

| Componente 3. VARIACION DE LA ESTRUCTURA FAMILIAR<br>3.osagaia. ALDAKETA FAMILI EGITURAN | |
|---|---|
| Necesidad de Nuevas Viviendas PB/TMF(n) – VOB =<br>*Etxebizitza Berrien Beharizana PO / FBT(n) – OEO =* | |
| Total Componente 3 / *Guztira 3. osagaia* | |

| Componente 4. CORRECCION DE LA RIGIDEZ DE LA OFERTA<br>4.osagaia.ESKAINTZAREN ZURRUNTASUNAREN ZUZENKETA | | |
|---|---|---|
| CR / *ZK* = | (VOB + C2 + C3) CR / *(OEO + O2 + O3) ZK* = | |
| Total Componente 4 / *Guztira 4. osagaia* | | |

| Componente 5. SEGUNDA RESIDENCIA<br>5.osagaia. BIGARREN EGOITZA | | |
|---|---|---|
| CSR/*BEK*= | C2 + C3 + C4 / *O2 + O3 + O4* = | |
| (C2 + C3 + C4 ) (CSR - 1) 0,5 / *(O2 + O3 + O4) (BEK-1) 0,5* = | | |
| Total Componente 5 / *Guztira 5. osagaia* | | |

| NUMERO MAXIMO DE VIVIENDAS A OFERTAR POR EL PLANEAMIENTO<br>PLANGINTZAK ESKAINTZAN JARRI BEHARREKO GEHIENEZKO ETXEBIZITZA-KOPURUA | | |
|---|---|---|
| C1 + C2 + C3 + C4 + C5 / *O1 + O2 + O3 + O4 + O5* = | TOTAL<br>*TOTAL* | |

**LEYENDA / *ESANAHIA***

- VOB: Viviendas Ocupadas en el año Base de la proyección
- *OEO: Okupatutako Etxebizitzak proiekzioaren oinarrizko urtean.*
- PB: Población en el año Base de la Proyección
- *PO: Populazioa proiekzioaren Oinarrizko urtean*
- PH: Población en el año horizonte de la proyección
- *PH: Populazioa proiekzioaren Horizonte-urtean*
- TFM(n): Tamaño medio Familiar en el año (n)
- *FBT (n): familiaren Batezbesteko Tamaina (n) urtean*
- TAC: Tasa Anual de Crecimiento demográfico
- *UHT: Urteko Hazkunde demografikoaren Tasa*
- CD:Crecimiento Demográfico
- *HD: Hazkunde Demografikoa*
- CR:Coeficiente de Rigidez
- *ZK: Zurruntasun-Koefizientea*
- CSR: Coeficiente de 2ª Residencia
- *BEK: Bigarren Egoitzako Koefizientea*

## 6. DOKUMENTUA

# UDAL PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK

UDAL PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ezarritakoari jarraiki, dokumentu honetan Lurraldearen Zatiko Plan honek eskualde-egiturako udalerri bakoitzean dituen eraginak adierazten dira.

Ondoren, udalerri bakoitzean eragina duten zehaztapen nagusiak laburbildu dira. Eskema moduko bat denez gero, dagozkion kapituluetara jo beharko da proposamen bakoitzaren benetako hedadura jakin nahi bada. Udalerri zehatzei dagozkien proposamenak baino ez dira jaso eta, horrenbestez, eskualde-egitura osoa edo udalerri guztiak batera hartzen dituzten proposamenak ez dira ageri.

**3.1. AIARA**

**2. kapitulua. Ingurune fisikoaren antolamendua**

- Natura-intereseko eremuak: Garobel mendigunea, Maroñoko urtegia eta Goi Erbiko putzuak.

- Hobetzeko eta/edo berreskuratzeko eremuak: Nerbioi ibaiaren ibilguan uholde-arrisku handiena duten eremuei dagozkienak (berriro gertatzeko 100 urteko aldia), eta I. eranskinean zerrendatzen diren lehengoratzeko eta hobetzeko beste ibai-ibilgu batzuen eremuak.

- Baso-intereseko eremuak (ikus Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapa).

- Nekazaritza-intereseko eremuak (ikus Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapa).

- Lur gaineko uren babesa: babes-zerrendak Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak ezartzen dituenak dira: 50 metro, Nerbioi ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Palanka eta Pagatxa erreken artean. Era berean, Maroñoko urtegiaren inguruan zabalera bereko zerrendak barne hartuko dira. 30 metro, lurzoru urbanizaezinean, Herrerias errekak eskualde egituran duen ibilbide guztirako, Ibalzibar errekarekin bat egiten duen tartetik, eta Izalde ibairako, Eskorreta errekarekin bat egiten duen guneraino, eta ingurune fisikoaren antolamendu-mapan irudikatzen diren, berariazko identifikaziorik ez duten eta babes bereziko esparruen artean barne hartu ez diren gainerako ibilguen lurzoru urbanizaezinerako. Sare hidrografikoaren gainerakoaren kasuan, Uren Legean ezarritakoa aplikatuko da, babes hidrologikoaren ondorioz mugatu beharreko erabilerei dagokienez. 100 metroko zerrendetan lurzoru urbanizaezineko berezko eraikuntzak, jarduerak eta erabilerak soilik onartuko dira. Maroñoko urtegiaren inguruan zerrenda hau 200 metrokoa izango da.

**3. kapitulua. Ingurumen-kalitateko azpiegiturak**

Ur-hornidura Maroñoko urtegiaren eta lurraldeko hainbat puntutan zehar banatutako lurpeko eta lur gaineko hartuneen bitartez. Hiri-hornidurari, abeltzaintzakoari eta industrialari beste baliabide batzuk esleitzea da asmoa. Lehen etapa batean Maroñoko urtegia goratzearen eta bere erregulazio-ahalmena gehitzearen ondoriozkoak izango dira. Bigarren etapa batean Erbi herrigunetik hurbil eraikitzea aurreikusten den Herreriasko urtegia egiteari ekingo zaio.

**4. kapitulua. Azpiegiturak eta ekipamenduak**

- A-625 errepidea egokitzeko eta hobetzeko jardunak: Amurrio ekialdeko saihesbidea eta Luiaondoko saihesbidearekiko konexioa amaitzea.

- A-624 errepidea Amurrio – Artziniega tartean hobetzeko jardunak.

- Landa-eremuetarako irisgarritasuna hobetzea, bertan turismoa sustatzeko: A-3630 errepidea Aiaratik, Erbiko haranean barrena, Burgosko probintziaraino.

- Landaguneetarako irisgarritasuna hobetzea: A-3618 errepidea (Maroño eta Madariarako sarbidea), A-3620 errepidea (Murga), A-3622 errepidea (Arespalditza – Luiaondo), A-3624 errepidea (Arespalditza – Zuhatza), A-3626 errepidea (Kexaarako sarbidea), A-3634 errepidea (Llantenotik A-2604 errepidera eta Gordexolara), A-3118 errepidea (Maroñotik Urduña-Orduñara), A-4610 errepidea (Izoriarako sarbidea), A-4615 errepidea (Madariarako sarbidea), A-4619 errepidea (Luxorako sarbidea), A-4620 errepidea (Kexaa – Menagarai), A-4621 errepidea (Opellorarako sarbidea), A-4622 errepidea (Lejarzorako sarbidea), A-4623 errepidea (Mendietarako sarbidea), A-4624 errepidea (Sojorako sarbidea).

- Eskualde-egiturako landa-espazioen eta hiriguneen artean garraio kolektiborako zerbitzuen esperientzia pilotuak garatzea sustatuko da. Horretarako, plaza-kopuru txikiko ibilgailuak erabiliko dira. Modalitate hori ezartzeko lehentasunezko ibilbideak honako hauek izango dira: Artziniega – Amurrio – Llodio, Arespalditza – Okondo – Llodio eta Urduña-Orduña – Maroño – Arespalditza – Llodio, ibilbide horietan zehar dauden gune guztietan gelditûz.

- Arespalditzak Turismo Zerbitzuen Gune gisa funtzionatu beharko du dagokion esparruan. Ildo horretan, bere landa-ingurunean kokatzen diren ostatu eta zuzkiduren garapena bultzatzeko beharrezko eskaintza osagarria hartu beharko du.

- Nerbioiko Parke Linealaren garapena Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapan adierazitako esparruen gainean gauzatuko da eta atseden-eremutzat joko da. Espazio hori lur gaineko urak babesteko kategoriari dagokio eta, horrenbestez, lurzoru urbanizaezintzat hartuko da eta lurzoru-mota horri dagokion erabilera-arautzea aplikatuko zaio. Garapenari dagokionez, Parke Lineala lau jardun-unitatetan antolatuko da eta honako hauek izango dute eragina Aiaran:

a. NPL-1, Llodioko hirigunearen hegoaldeko lurzoru urbanizagarriaren mugatik Luiaondoko herrigunearen iparraldeko hiri-lurzoruaren mugaraino.
b. NPL-2, Luiaondoko hiri-lurzoruaren hegoaldeko mugatik Amurrioko udalerrian dagoen industria-lurzoruaren iparraldeko mugaraino.

- Beste hainbat atseden-eremu garatuko dira Udalaz Gaindiko Ekipamenduen eta Espazio Libreen Mapan adierazten diren esparruetan: Etxaurren eta Maroño, Aiaran.

- Eskualdeko Sare Berdea, honako ibilbide hauek osatzen dutena, Udalaz Gaindiko Ekipamenduen eta Espazio Libreen Mapan adierazitakoekin bat etorriz: Aiarako haraneko zirkuitua, Maroñoko zirkuitua, Erbiko zirkuitua eta Izaldeko zirkuitua, Aiaran guztiak.

**5. kapitulua. Kokaguneen sistema eta jarduera ekonomikoen espazioak**

- Araiako Menagarai-Beotegi, Murga eta Arespalditzako herriguneak erreferentziazko biztanleguneak dira eskualde-egituraren landa-espazioak garatzeko eta lurraldea antolatzeko.

- Natura-interes handiagoko espazioetatik hurbil dauden gune txikiak lurralderako sarreragune gisa egokitzeko eragiketa pilotuak garatuko dira. Horretarako, aparkalekuak eta bisitariak hartzeko instalazioak ezarriko dira eta turismo-zerbitzuak kokatzea sustatuko da. Erakusgarri moduko proiektuen funtzio hori garatzeko Aiarako Añes gunea ezartzen da.

- Irizpide orokor gisa, jarduera ekonomikoetarako lurzorua garatzeko ekintzak bertako eskaria asetzen dela bermatzera zuzenduko dira eta Bilbao Metropolitarreko eskualde-egituratik bideratzen den kanpoko eskaintzaren zati bat bereganatzeko lurzoru-eskaintza berriak egingo dira.

- Aiarako udalerriak lehentasunezko interesa izango du jarduera ekonomikoetarako lurzorua hirigintza-arloan sustatzeko eta antolatzeko. Bertan, finkatutako lurzoruak hobetzea, zaharkitutako industria-eremuak birmoldatzea, okupatu gabeko industria-kalifikazioa duten lurzoruak garatzea eta gaur egun dauden poligonoak sustatzea bere baitan hartuko dituen jarduera ekonomikoetarako lurzoruak antolatzeko, kudeatzeko eta hirigintza arloan sustatzeko politika garatuko da.

- Horrez gain, jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa sortuko da. Ildo horretan, Lurraldearen Zatiko Planak jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketa bat adierazten du:

Amurrio-Aiara esparruan eskualde-mailako beste poligono bat garatzea. Lehentasunez Amurrio Iparraldea-Aiara esparruan kokatzea proposatzen da. Planaren indarraldian premiei erantzuteko 25 eta 50 hektarea arteko azalera ezartzen da, sekuentzialki garatuz gaur egungo Murgako poligonoaren jarduerekin eta garapenarekin bateragarri.

- Bizitegi-eskaintzaren kuantifikazioa:

| Udalerria | Etxebizitzak 1996an | Etxebizitza okupatuak 1996an | Gehienezko kuantifikazioa 8 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 8 urte | Gehienezko kuantifikazioa 16 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 16 urte |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aiara | 926 | 627 | 503 | 311 | 669 | 414 |

**3.2. AMURRIO**

**2. kapitulua. Ingurune fisikoaren antolamendua**

- Natura-intereseko eremuak: Gorbeiako Natura Parkea, Itxinako Mendiguneko Biotopo Babestua, Gibijo mendiguneko labarrak-Delikako ur-jauzia, eta Nerbioi ibaiaren hasierako ibilbidea.

- Hobetzeko eta/edo berreskuratzeko eremuak: Nerbioi ibaiaren ibilguan uholde-arrisku handiena duten eremuei dagozkienak (berriro gertatzeko 100 urteko aldia), eta I. eranskinean zerrendatzen diren lehengoratzeko eta hobetzeko beste ibai-ibilgu batzuen eremuak.

- Baso-intereseko eremuak (ikus Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapa).

- Nekazaritza-intereseko eremuak (ikus Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapa).

- Lur gaineko uren babesa: babes-zerrendak Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak ezartzen dituenak dira: 50 metro, Nerbioi ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Palanka eta Pagatxa erreken artean. 30 metro, Nerbioi ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Pagatxa errekaren eta Delikaren artean, eta ingurune fisikoaren antolamendu-mapan irudikatzen diren, berariazko identifikaziorik ez duten eta babes bereziko esparruen artean barne hartu ez diren gainerako ibilguen lurzoru urbanizaezinerako. Sare hidrografikoaren gainerakoaren kasuan, Uren Legean ezarritakoa aplikatuko da, babes hidrologikoaren ondorioz mugatu beharreko erabilerei dagokienez. Ongi kontserbatutako landaredia hartzen duten zerrenda horien esparruetan, identifikatutako landare-formazioaren kanpoaldeko mugaz 10 metro harantzago zabalduko dira zerrenda horiek. Puntu horiek I. eranskinean zerrendatutakoak dira.

**3. kapitulua. Ingurumen-kalitateko azpiegiturak**

- Ur-hornidura Maroñoko urtegiaren eta lurraldeko hainbat puntutan zehar banatutako lurpeko eta lur gaineko hartuneen bitartez. Hiri-hornidurari, abeltzaintzakoari eta industrialari beste baliabide batzuk esleitzen zaizkie. Lehen etapa batean Maroñoko urtegia goratzearen eta bere erregulazio-ahalmena gehitzearen ondoriozkoak izango dira. Bigarren etapa batean Erbi herrigunetik hurbil eraikitzea aurreikusten den Herreriasko urtegia egiteari ekingo zaio.

- Arazketarako, Urduña-Orduñako, Markijanako (Amurrio) eta Besaurbeko (Llodio) ur zikinen araztegiak ezartzen dira Nerbioi ibaiaren arroan kokatzen diren guneetarako.

**4. kapitulua. Azpiegiturak eta ekipamenduak**

- A-625 errepidea egokitzeko eta hobetzeko jardunak: Amurrio ekialdeko saihesbidea eta Luiaondoko saihesbidearekiko konexioa amaitzea eta Urduña-Orduña – Amurrioko saihesbidea tartea egokitzea eta hobetzea.

- A-624 errepidea Amurrio – Artziniega tartean hobetzeko jardunak.

- Landaguneetarako irisgarritasuna hobetzea: A-2522 errepidea (Baranbiorako sarbidea), A-4603 errepidea (Onsoñorako sarbidea), A-4604 errepidea (Lekamañarako sarbidea), A-4605 errepidea (Tertangarako sarbidea), A-4608 errepidea (Aloriarako sarbidea), A-4906 errepidea (Delikarako sarbidea), A-4907 errepidea (Artomañarako sarbidea).

- Trenbide-garraioari dagokionez, toki, foru eta autonomia-erkidegoko erakundeetatik Bilbao – Llodio – Amurrio – Urduña-Orduña tartean aldiriko zerbitzuak areagotzea sustatuko da.

- Eskualde-egiturako landa-espazioen eta hiriguneen artean garraio kolektiborako zerbitzuen esperientzia pilotuak garatzea sustatuko da. Horretarako, plaza-kopuru txikiko ibilgailuak erabiliko dira. Modalitate hori ezartzeko lehentasunezko ibilbideen artean Artziniega – Amurrio – Llodio dago, ibilbide horretan zehar dauden gune guztietan gelditur.

- Nerbioiko Parke Linealaren garapena Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapan adierazitako esparruen gainean gauzatuko da eta atseden-eremutzat joko da. Espazio hori lur gaineko urak babesteko kategoriari dagokio eta, horrenbestez, lurzoru urbanizaezintzat hartuko da eta lurzoru-mota horri dagokion erabilera-arautzea aplikatuko zaio. Garapenari dagokionez, Parke Lineala lau jardun-unitatetan antolatuko da eta honako hauek izango dute eragina Amurrion:

b. NPL-2, Luiaondoko hiri-lurzoruaren hegoaldeko mugatik Amurrioko udalerrian dagoen industria-lurzoruaren iparraldeko mugaraino.

c. NPL-3, Amurrioko hegoaldean dauden industria-lurzoruen mugaren eta Urduña-Orduñako herrigunearen iparraldeko lurzoru urbanizagarrien artean garatzeko. Ibaiaren ibilgu zaharra berreskuratzea eta lehengoratzea barne hartuko du, harri-lubetak kenduz eta ur-bazterreko landaredia birsortuz.

- Eskualdeko Sare Berdea, hainbat ibilbidek osatzen dutena, Udalaz Gaindiko Ekipamenduen eta Espazio Libreen Mapan adierazitakoekin bat etorriz. Amurrioko udalerriaren barruan: Padurako zirkuitua.

**5. kapitulua. Kokaguneen sistema eta jarduera ekonomikoen espazioak**

Amurrioko udalerriko bizitegi-lurzoru hiritarra Amurrio, Baranbio eta Delikako entitateei eta lege arloko irizpideen eta erabilera-aukeren ondorioz beren esparruetan hiri-lurzorua mugatzea bidezkotzat jo den beste entitate txikiagoei dagozkien herriguneetan zatitzen da, gune horiek gaur egun indarrean dagoen plangintzan duten tratamenduarekin bat etorriz.

- Amurrioko hiriguneak eta bere inguruneak garapen berriak hartzeko ahalmen handia eta kokapen zentrala dute eskualde-egituraren barruan eta Nerbioiko ardatzarekiko. Hori dela-eta, eremu hori Bilbao Metropolitarra deskongestionatzeko eskualde-egituraren eginkizuna bideratuko duten bizitegi-jardunak eta jarduera-espazioen jardunak sustatzeko aukera emango duen eremu handi gisa konfiguratu behar da. Horretarako, Lurraldearen Zatiko Planak honako irizpide hauek ezartzen ditu:

a. Gaur egungo hirigunearen ekialdean eta ipar-ekialdean, Nerbioi ibaiaren eskuinaldeko eremuetan dauden lurzoru-erreserbak lortzea eta gaur egun kalifikatuta dauden bizitegi-lurzoruak garatzea.

b. Hirigunearen ipar-ekialdean dauden eremuetan erabilera mistoak antolatzea (bizitegia, zuzkidurak eta hirugarren sektoreko jarduerak), Enpresa Etxeak izeneko eremua osatuz.

c. Egungo hiri-lurzoru finkatuaren mendebaldeko eremuetan egitura eta paisaia antolatzeko jardunak gauzatzea, eraikuntza-erabileren eta espazio libreen nahastea aprobetxatuz ingurumen-erakargarritasun handiko hiri-esparrua konfiguratzeko.

- Natura-interes handiagoko espazioetatik hurbil dauden gune txikiak lurralderako sarreragune gisa egokitzeko eragiketa pilotuak garatuko dira. Horretarako, aparkalekuak eta bisitariak hartzeko instalazioak ezarriko dira eta turismo-zerbitzuak kokatzea sustatuko da. Erakusgarri moduko proiektuen funtzio hori garatzeko Amurrioko Delika gunea ezartzen da.

- Irizpide orokor gisa, jarduera ekonomikoetarako lurzorua garatzeko ekintzak bertako eskaria asetzen dela bermatzera zuzenduko dira eta Bilbao Metropolitarreko eskualde-egituratik bideratzen den kanpoko eskaintzaren zati bat bereganatzeko lurzoru-eskaintza berriak egingo dira.

- Amurrioko udalerriak lehentasunezko interesa izango du jarduera ekonomikoetarako lurzorua hirigintza-arloan sustatzeko eta antolatzeko. Bertan, finkatutako lurzoruak hobetzea, zaharkitutako industria-eremuak birmoldatzea, okupatu gabeko industria-kalifikazioa duten lurzoruak garatzea eta gaur egun dauden poligonoak sustatzea bere baitan hartuko dituen jarduera ekonomikoetarako lurzoruak antolatzeko, kudeatzeko eta hirigintza arloan sustatzeko politika garatuko da.

- Horrez gain, jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa sortuko da. Ildo horretan, Lurraldearen Zatiko Planak jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko bi eragiketa planteatzen ditu. Amurrion honako hau:

- Amurrio-Aiara esparruan eskualde-mailako beste poligono bat garatzea. Lehentasunez Amurrio Iparraldea-Aiara esparruan kokatzea finkatzen da. Planaren indarraldian premiei erantzuteko 25 eta 50 hektarea arteko azalera ezartzen da, sekuentzialki garatuz gaur egungo Murgako poligonoaren jarduerekin eta garapenarekin bateragarri.

- Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legean ezarritakoaren arabera, Lurraldearen Zatiko Planak honako kokapen eta dimentsionamendu irizpide hauek finkatzen ditu hurrengo 16 urteetarako, sustapen publiko zein pribatuko babes ofizialeko etxebizitzak edo etorkizunean berariazko arautzearen bitartez azken prezioa muga lekiekeen edonolakoak eraikitzeko erreserbatu behar diren lurzoruen (gaur egun horretarako kalifikatutako lurzoru libreak barne) kuantifikazioari buruz::

| Udalerria | Proposatutako BOE | Kalifikatutako BOE (2000ko urt.) | Kalifikatzeko premiak |
|---|---|---|---|
| Amurrio | 1.000 | 756 | 244 |

- Bizitegi-eskaintzaren kuantifikazioa:

| Udalerria | Etxebizitzak 1996an | Etxebizitza okupatuak 1996an | Gehienezko kuantifikazioa 8 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 8 urte | Gehienezko kuantifikazioa 16 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 16 urte |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Amurrio | 3.597 | 2.948 | 1.636 | 1.019 | 2.176 | 1.355 |

## 3.3. ARAKALDO

### 2. kapitulua. Ingurune fisikoaren antolamendua

- Natura-intereseko eremuak:

- Hobetzeko eta/edo berreskuratzeko eremuak: Nerbioi ibaiaren ibilguan uholde-arrisku handiena duten eremuei dagozkienak (berriro gertatzeko 100 urteko aldia), eta I. eranskinean zerrendatzen diren lehengoratzeko eta hobetzeko beste ibai-ibilgu batzuen eremuak.

- Baso-intereseko eremuak (ikus Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapa).

- Lur gaineko uren babesa: babes-zerrendak Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak ezartzen dituenak dira: 50 metro lineal, Nerbioi ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Arakaldoko udalerrian zeharreko ibilbidean.

### 3. kapitulua. Ingurumen-kalitateko azpiegiturak

- Ur-hornidura Maroñoko urtegiaren eta lurraldeko hainbat puntutan zehar banatutako lurpeko eta lur gaineko hartuneen bitartez. Hiri-hornidurari, abeltzaintzakoari eta industrialari beste baliabide batzuk esleitzen zaizkie. Lehen etapa batean Maroñoko urtegia goratzearen eta bere erregulazio-ahalmena gehitzearen ondoriozkoak izango dira. Bigarren etapa batean Erbi herrigunetik hurbil eraikitzea aurreikusten den Herreriasko urtegia egiteari ekingo zaio.

- Arazketarako, Urduña-Orduñako, Markijanako (Amurrio) eta Besaurbeko (Llodio) ur zikinen araztegiak ezartzen dira Nerbioi ibaiaren arroan kokatzen diren guneetarako.

### 4. kapitulua. Azpiegiturak eta ekipamenduak

- Nerbioiko Parke Linealaren garapena Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapan adierazitako esparruen gainean gauzatuko da eta atseden-eremutzat joko da. Espazio hori lur gaineko urak babesteko kategoriari dagokio eta, horrenbestez, lurzoru urbanizaezintzat hartuko da eta lurzoru-mota horri dagokion erabilera-arautzea aplikatuko zaio. Garapenari dagokionez, Parke Lineala lau jardun-unitatetan antolatuko da eta honako hauek izango dute eragina Arakaldon:

  a. NPL-1, Eskualde-egituraren mugatik, Arakaldon, Luiaondoko herrigunearen iparraldeko hiri-lurzoruaren mugaraino.

### 5. kapitulua. Kokaguneen sistema eta jarduera ekonomikoen espazioak

- Irizpide orokor gisa, jarduera ekonomikoetarako lurzorua garatzeko ekintzak bertako eskaria asetzen dela bermatzera zuzenduko dira eta Bilbao Metropolitarreko eskualde-egituratik bideratzen den kanpoko eskaintzaren zati bat bereganatzeko lurzoru-eskaintza berriak egingo dira.

- Arakaldoko udalerrian jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren neurrizko hazkundea hartzen da aintzat. Gisa horretako udalerrietako plangintzan ez da jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarriko sektore gehiago ezarriko, pizgarri gisako ekimen publikoetarako lurzoruak edo bertako eskari berriei aurre egiteko lurzoruak izan ezik. Gaur egun dauden lurzoruak finkatzeko politika diseinatzen da eta lurzoru horietan gaur egungo urbanizazioak hobetzeko eta akabera egokia emateko lehentasunezko ekintzak bideratuko dira.

- Bizitegi-eskaintzaren kuantifikazioa:

| Udalerria | Etxebizitzak 1996an | Etxebizitza okupatuak 1996an | Gehienezko kuantifikazioa 8 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 8 urte | Gehienezko kuantifikazioa 16 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 16 urte |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Arakaldo | 43 | 31 | 20 | 13 | 27 | 17 |

## 3.4. ARTZINIEGA

### 2. kapitulua. Ingurune fisikoaren antolamendua

- Natura-intereseko eremuak: Artziniegako artea.

- Hobetzeko eta/edo berreskuratzeko eremuak:

- Baso-intereseko eremuak (ikus Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapa).

- Nekazaritza-intereseko eremuak (ikus Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapa).

- Lur gaineko uren babesa: babes-zerrendak Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak ezartzen dituenak dira: 30 metro, Herrerias errekaren lurzoru urbanizaezinerako, eskualde egituran duen ibilbide guztian, Ibalzibar errekarekin bat egiten duen tartetik, eta ingurune fisikoaren antolamendu-mapan irudikatzen diren, berariazko identifikaziorik ez duten eta babes bereziko esparruen artean barne hartu ez diren gainerako ibilguen lurzoru urbanizaezinerako. Sare hidrografikoaren gainerakoaren kasuan, Uren Legean ezarritakoa aplikatuko da, babes hidrologikoaren ondorioz mugatu beharreko erabilerei dagokienez. 100 metroko zerrendetan lurzoru urbanizaezineko berezko eraikuntzak, jarduerak eta erabilerak soilik onartuko dira. Ongi kontserbatutako landaredia hartzen duten zerrenda horien esparruetan, identifikatutako landare-formazioaren kanpoaldeko mugaz 10 metro harantzago zabalduko dira zerrenda horiek. Puntu horiek I. eranskinean zerrendatutakoak dira.

### 3. kapitulua. Ingurumen-kalitateko azpiegiturak

- Ur-hornidura Maroñoko urtegiaren eta lurraldeko hainbat puntutan zehar banatutako lurpeko eta lur gaineko hartuneen bitartez. Hiri-hornidurari, abeltzaintzakoari eta industrialari beste baliabide batzuk esleitzen zaizkie. Lehen etapa batean Maroñoko urtegia goratzearen eta bere erregulazio-ahalmena gehitzearen ondoriozkoak izango dira. Bigarren etapa batean Erbi herrigunetik hurbil eraikitzea aurreikusten den Herreriasko urtegia egiteari ekingo zaio.

- Arazketarako, Artziniegako ur zikinen araztegia ezartzen da Kadagua ibaiaren arroan kokatzen diren guneetarako.

### 4. kapitulua. Azpiegiturak eta ekipamenduak

- A-624 errepidea Amurrio – Artziniega tartean hobetzeko jardunak.

- Eskualde-egituraren iparraldearen eta Enkarterriaren eta Kadaguako korridorearen arteko erlazioak: A-624 errepidea Artziniegatik hobetzea eta A-2604 errepidea ere Artziniegatik hobetzea.

- Landa-eremuetarako irisgarritasuna hobetzea, bertan turismoa sustatzeko: A-2602 errepidea eta A-3636 errepidea Artziniegatik Burgosko probintziaraino.

- Landaguneetarako irisgarritasuna hobetzea: A-4625 errepidea (Retes de Tudelarako sarbidea).

- Eskualde-egiturako landa-espazioen eta hiriguneen artean garraio kolektiborako zerbitzuen esperientzia pilotuak garatzea sustatuko da. Horretarako, plaza-kopuru txikiko ibilgailuak erabiliko dira: Artziniega – Amurrio – Llodio.

- Artziniegak Turismo Zerbitzuen Gune gisa funtzionatu beharko du dagokion esparruan. Ildo horretan, bere landa-ingurunean kokatzen diren ostatu eta zuzkiduren garapena bultzatzeko beharrezko eskaintza osagarria hartu beharko du.

- Eskualdeko Sare Berdea, hainbat ibilbidek osatzen dutena, Udalaz Gaindiko Ekipamenduen eta Espazio Libreen Mapan adierazitakoekin bat etorriz. Artziniegako udalerriaren barruan: Artziniegako zirkuitua.

**5. kapitulua. Kokaguneen sistema eta jarduera ekonomikoen espazioak**

- Artziniegako udal-burutza erreferentziazko biztanlegunea da eskualde-egituraren landa-espazioak garatzeko eta lurraldea antolatzeko.

- Gaur egungo etxebizitzak birgaitzeko ekintzek funtsezkoak behar dute izan etxebizitza-parkea gehitzeko eta hiriguneetako hiri-kalitatea mantentzeko. Alabaina, beste jardun batzuk ere gauzatu ahal izango dira eskari antolatuan oinarrituta, betiere guneen bereizgarri diren ezaugarri morfologikoak eta tipologikoak mantentzen badira.

Ildo horretan, arreta berezia merezi du Artziniegako guneak, Bilbao Metropolitarrarekiko hurbiltasuna, bigarren bizitegiko parke handia eta datozen urteotan egingo diren Kadaguako korridorearekiko konexio-hobekuntzak kontuan hartuta. Helburu horrekin, dentsitate ertaineko/txikiko bizitegi-hazkundea garatuko da gaur egungo gunearen aldamenean.

- Irizpide orokor gisa, jarduera ekonomikoetarako lurzorua garatzeko ekintzak bertako eskaria asetzen dela bermatzera zuzenduko dira eta Bilbao Metropolitarreko eskualde-egituratik bideratzen den kanpoko eskaintzaren zati bat bereganatzeko lurzoru-eskaintza berriak egingo dira.

- Artziniegako udalerrian jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren neurrizko hazkundea hartzen da aintzat. Gisa horretako udalerrietako plangintzan ez da jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarriko sektore gehiago ezarriko, pizgarri gisako ekimen publikoetarako lurzoruak edo bertako eskari berriei aurre egiteko lurzoruak izan ezik. Gaur egun dauden lurzoruak finkatzeko politika diseinatzen da eta lurzoru horietan gaur egungo urbanizazioak hobetzeko eta akabera egokia emateko lehentasunezko ekintzak bideratuko dira.

- Bizitegi-eskaintzaren kuantifikazioa:

| Udalerria | Etxebizitzak 1996an | Etxebizitza okupatuak 1996an | Gehienezko kuantifikazioa 8 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 8 urte | Gehienezko kuantifikazioa 16 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 16 urte |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Artziniega | 804 | 450 | 648 | 438 | 862 | 583 |

## 3.5. LLODIO

### 2. kapitulua. Ingurune fisikoaren antolamendua

- Natura-intereseko eremuak: Llodioko artadiak.

- Hobetzeko eta/edo berreskuratzeko eremuak: Nerbioi ibaiaren ibilguan uholde-arrisku handiena duten eremuei dagozkienak (berriro gertatzeko 100 urteko aldia), eta I. eranskinean zerrendatzen diren lehengoratzeko eta hobetzeko beste ibai-ibilgu batzuen eremuak.

- Baso-intereseko eremuak (ikus Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapa).

- Lur gaineko uren babesa: babes-zerrendak Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak ezartzen dituenak dira: 50 metro, Nerbioi ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Palanka eta Pagatxa erreken artean, Altube ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Nerbioi ibaiarekin bat egiten duen gunetik Argaitza errekarainoko tartean. 30 metro, ingurune fisikoaren antolamendu-mapan irudikatzen diren, berariazko identifikaziorik ez duten eta babes bereziko esparruen artean barne hartu ez diren gainerako ibilguen lurzoru urbanizaezinerako. Sare hidrografikoaren gainerakoaren kasuan, Uren Legean ezarritakoa aplikatuko da, babes hidrologikoaren ondorioz mugatu beharreko erabilerei dagokienez. 100 metroko zerrendetan lurzoru urbanizaezineko berezko eraikuntzak, jarduerak eta erabilerak soilik onartuko dira. Ongi kontserbatutako landaredia hartzen duten zerrenda horien esparruetan, identifikatutako landare-formazioaren kanpoaldeko mugaz 10 metro harantzago zabalduko dira zerrenda horiek. Puntu horiek I. eranskinean zerrendatutakoak dira.

### 3. kapitulua. Ingurumen-kalitateko azpiegiturak

- Ur-hornidura Maroñoko urtegiaren eta lurraldeko hainbat puntutan zehar banatutako lurpeko eta lur gaineko hartuneen bitartez. Hiri-hornidurari, abeltzaintzakoari eta industrialari beste baliabide batzuk esleitzen zaizkie. Lehen etapa batean Maroñoko urtegia goratzearen eta bere erregulazio-ahalmena gehitzearen ondoriozkoak izango dira. Bigarren etapa batean Erbi herrigunetik hurbil eraikitzea aurreikusten den Herreriasko urtegia egiteari ekingo zaio.

- Arazketarako, Urduña-Orduñako, Markijanako (Amurrio) eta Besaurbeko (Llodio) ur zikinen araztegiak ezartzen dira Nerbioi ibaiaren arroan kokatzen diren guneetarako.

### 4. kapitulua. Azpiegiturak eta ekipamenduak

- A-3632 errepidea Garate taineraino egokitzea Llodio – Okondo konexioa hobetzeko.

- BI-2522 errepidea hobetzea Llodio eta Orozko arteko konexioan.

- Landaguneetarako irisgarritasuna hobetzea: A-4616 errepidea (Llodio – Okondo).

- Trenbide-garraioari dagokionez, toki, foru eta autonomia-erkidegoko erakundeetatik Bilbao – Llodio – Amurrio – Urduña-Orduña tartean aldiriko zerbitzuak areagotzea sustatuko da.

- Eskualde-egiturako landa-espazioen eta hiriguneen artean garraio kolektiborako zerbitzuen esperientzia pilotuak garatzea sustatuko da. Horretarako, plaza-kopuru txikiko ibilgailuak erabiliko dira: Artziniega – Amurrio – Llodio, Arespalditza – Okondo – Llodio eta Urduña-Orduña – Maroño – Arespalditza – Llodio, ibilbide horietan zehar dauden gune guztietan gelditu z.

- Nerbioiko Parke Linealaren garapena Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapan adierazitako esparruen gainean gauzatuko da eta atseden-eremutzat joko da. Espazio hori lur gaineko urak babesteko kategoriari dagokio eta, horrenbestez, lurzoru urbanizaezintzat hartuko da eta lurzoru-mota horri dagokion erabilera-arautzea aplikatuko zaio. Garapenari dagokionez, Parke Lineala lau jardun-unitatetan antolatuko da eta honako honek izango du eragina Llodion:

  a. NPL-1, Llodioko hirigunearen hegoaldeko lurzoru urbanizagarriaren mugatik Luiaondoko herrigunearen iparraldeko hiri-lurzoruaren mugaraino.

- Lurraldearen Zatiko Planak beste hainbat atseden-eremu garatzen ditu Udalaz Gaindiko Ekipamenduen eta Espazio Libreen Mapan adierazten diren esparruetan: Santa Luzia, Llodion.

- Eskualdeko Sare Berdea, hainbat ibilbidek osatzen dutena, Udalaz Gaindiko Ekipamenduen eta Espazio Libreen Mapan adierazitakoekin bat etorriz. Llodioko udalerriaren barruan: Pagolarko zirkuitua.

**5. kapitulua. Kokaguneen sistema eta jarduera ekonomikoen espazioak**

- Llodioko gunearen hiri-garapenak batik bat eraikitako hiria hartuko du ardatz, eta gunearen hiri-kalitatea eta funtzionaltasuna hobetzea ahalbidetuko duten berrikuntza-ekintzak garatuko ditu. Horretarako funtsezko irizpide gisa, honako ekintza-ildo hauek ezartzen dira:

a. Trenbidea lurpetik bideratuko da Guardian Llodio enpresako fabrikazio-linea nagusiaren hego-mendebaldeko muturraren eta autobiaren zentroko lotuneko adarraren artean dagoen tartean, pertsonentzako eta salgaientzako gaur egungo trenbide-zerbitzuak mantenduz. Eragiketa horren bidez libre uzten diren espazioei esker, gunearen erdialdeko espazioa birkualifikatu eta ibaiertzak egokitu ahal izango dira, eta espazio erabilgarria izango da geltoki nagusia eskualde-mailako trukatze-geltoki gisa egokitzeko.

b. Ibai-bazterrak eta hiriaren erdialdeko espazioak hobetu egingo dira trenbidea lurperatzen denean orain okupatzen dituen lurzoruak libre geratzen direnean. Ekimen horren ondorioz, ibaiaren lur mugakideak Nerbioiko Parke Linealaren barruan barne hartuko dira eta, hala, Llodioko parke nagusia eratuko duen hiri-egonlekua sortuko da.

c. Hiri-berrikuntzako eragiketak eta bizitegi-espazio berriak eta eskualde-mailako zuzkidurak sortzeko eragiketak garatuko dira, trenbidea lurperatzeak eta hiri-berrikuntzako eta transformazioko ekintzek libre utziko dituzten espazioen gaineko jardunen bitartez.

d. Bizitegi-eskaintza areagotu egin behar da horretarako kalifikatutako lurzoruak aprobetxatuz, bizitegi-garapen intentsiboen bitartez, eta erabilera horiek hartzeko ahalmena duten esparru berriak aprobetxatuz, Santa Kruz eta Txirrita arteko inguruan batik bat.

- Irizpide orokor gisa, jarduera ekonomikoetarako lurzorua garatzeko ekintzak bertako eskaria asetzen dela bermatzera zuzenduko dira eta Bilbao Metropolitarreko eskualde-egituratik bideratzen den kanpoko eskaintzaren zati bat bereganatzeko lurzoru-eskaintza berriak egingo dira.

- Llodioko kasuan, industria-eremu zaharkituak birmoldatzeko prozesuak sustatzera zuzendutako berariazko hirigintza-politika garatzen da. Esparru horietan erabilera globala mantentzearen alde egiten duten aldaketa-prozesuak bultzatuko dira, eta erabilera hori formatu ertaineko merkataritza-zentroak, bulego-eraikinak, enpresa-hotelak eta eskualdeko eta tokiko ekipamenduak ezartzera bideratuko da.

- Llodioko udalerriak lehentasunezko interesa izango du jarduera ekonomikoetarako lurzorua hirigintza-arloan sustatzeko eta antolatzeko. Bertan, finkatutako lurzoruak hobetzea, zaharkitutako industria-eremuak birmoldatzea, okupatu gabeko industria-kalifikazioa duten lurzoruak garatzea eta gaur egun dauden poligonoak sustatzea bere baitan hartuko dituen jarduera ekonomikoetarako lurzoruak antolatzeko, kudeatzeko eta hirigintza arloan sustatzeko politika garatuko da.

- Horrez gain, jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa sortuko da. Ildo horretan, Lurraldearen Zatiko Planak jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko bi eragiketa planteatzen ditu. Llodion honako hau:

- Llodioko eskualdeko industrialde berria, 10 eta 25 hektarea arteko azalerakoa. Hirigunearen hegoaldean, A-625 saihesbidearen eta trenbidearen artean, kokatzea proposatzen da.

- Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legean ezarritakoaren arabera, Lurraldearen Zatiko Planak honako kokapen eta dimentsionamendu irizpide hauek finkatzen ditu hurrengo 16 urteetarako, sustapen publiko zein pribatuko babes ofizialeko etxebizitzak edo etorkizunean berariazko arautzearen bitartez azken prezioa muga lekiekeen edonolakoak eraikitzeko erreserbatu behar diren lurzoruen (gaur egun horretarako kalifikatutako lurzoru libreak barne) kuantifikazioari buruz:

| Udalerria | Proposatutako BOE | Kalifikatutako BOE (2000ko urt.) | Kalifikatzeko premiak |
|---|---|---|---|
| Llodio | 480 | 247 | 233 |

- Bizitegi-eskaintzaren kuantifikazioa:

| Udalerria | Etxebizitzak 1996an | Etxebizitza okupatuak 1996an | Gehienezko kuantifikazioa 8 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 8 urte | Gehienezko kuantifikazioa 16 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 16 urte |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Llodio | 6.908 | 6.175 | 2.291 | 1.545 | 3.047 | 2.055 |

### 3.6. OKONDO

#### 2. kapitulua. Ingurune fisikoaren antolamendua

- Natura-intereseko eremuak:

- Hobetzeko eta/edo berreskuratzeko eremuak:

- Baso-intereseko eremuak (ikus Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapa).

- Nekazaritza-intereseko eremuak (ikus Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapa).

- Lur gaineko uren babesa: babes-zerrendak Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak ezartzen dituenak dira: 50 metro, Izalde ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Herrerias errekarekin bat egiten duen gunetik. 30 metro, Izalde ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Eskorreta errekarekin bat egiten duen guneraino, eta ingurune fisikoaren antolamendu-mapan irudikatzen diren, berariazko identifikaziorik ez duten eta babes bereziko esparruen artean barne hartu ez diren gainerako ibilguen lurzoru urbanizaezinerako. Sare hidrografikoaren gainerakoaren kasuan, Uren Legean ezarritakoa aplikatuko da, babes hidrologikoaren ondorioz mugatu beharreko erabilerei dagokienez.

100 metroko zerrendetan lurzoru urbanizaezineko berezko eraikuntzak, jarduerak eta erabilerak soilik onartuko dira. Ongi kontserbatutako landaredia hartzen duten zerrenda horien esparruetan, identifikatutako landare-formazioaren kanpoaldeko mugaz 10 metro harantzago zabalduko dira zerrenda horiek. Puntu horiek I. eranskinean zerrendatutakoak dira.

#### 3. kapitulua. Ingurumen-kalitateko azpiegiturak

- Ur-hornidura Maroñoko urtegiaren eta lurraldeko hainbat puntutan zehar banatutako lurpeko eta lur gaineko hartuneen bitartez. Hiri-hornidurari, abeltzaintzakoari eta industrialari beste baliabide batzuk esleitzen zaizkie. Lehen etapa batean Maroñoko urtegia goratzearen eta bere erregulazio-ahalmena gehitzearen ondoriozkoak izango dira. Bigarren etapa batean Erbi herrigunetik hurbil eraikitzea aurreikusten den Herreriasko urtegia egiteari ekingo zaio.

- Arazketarako, Artziniegako ur zikinen araztegia ezartzen da Kadagua ibaiaren arroan kokatzen diren guneetarako.

- Ganekogortako kokaleku eolikoa energia eolikoa sortzeko parkeak kokatzeko gaitasun handikotzat joko da.

#### 4. kapitulua. Azpiegiturak eta ekipamenduak

- A-3632 errepidea Garate gaineraino egokitzea Llodio – Okondo konexioa hobetzeko.

- Eskualde-egituraren iparraldearen eta Enkarterriaren eta Kadaguako korridorearen arteko erlazioak: A-3641 errepidea Okondotik hobetzea.

- Landaguneetarako irisgarritasuna hobetzea: A-4616 errepidea (Llodio – Okondo).

- Eskualde-egiturako landa-espazioen eta hiriguneen artean garraio kolektiborako zerbitzuen esperientzia pilotuak garatzea sustatuko da. Horretarako, plaza-kopuru txikiko ibilgailuak erabiliko dira: Arespalditza – Okondo – Llodio.

- Okondok Turismo Zerbitzuen Gune gisa funtzionatu beharko du dagokion esparruan. Ildo horretan, bere landa-ingurunean kokatzen diren ostatu eta zuzkiduren garapena bultzatzeko beharrezko eskaintza osagarria hartu beharko du.

- Eskualdeko Sare Berdea, hainbat ibilbidek osatzen dutena, Udalaz Gaindiko Ekipamenduen eta Espazio Libreen Mapan adierazitakoekin bat etorriz. Okondoko udalerriaren barruan: Okondoko zirkuitua eta Izaldeko zirkuitua.

**5. kapitulua. Kokaguneen sistema eta jarduera ekonomikoen espazioak**

- Okondoko udal-burutza erreferentziazko biztanlegunea da eskualde-egituraren landa-espazioak garatzeko eta lurraldea antolatzeko.

- Gaur egungo etxebizitzak birgaitzeko ekintzek funtsezkoak behar dute izan etxebizitza-parkea gehitzeko eta hiriguneetako hiri-kalitatea mantentzeko. Alabaina, beste jardun batzuk ere gauzatu ahal izango dira eskari antolatuan oinarrituta, betiere guneen bereizgarri diren ezaugarri morfologikoak eta tipologikoak mantentzen badira.
Okondoko gune nagusia, irisgarritasun handia eta biztanle-dentsitate handieneko eremuekiko kokapen egokia kontuan hartuta, bizitegi-hazkundeko eragiketa zabalagoetarako harreragune gisa diseinatzen da.

- Irizpide orokor gisa, jarduera ekonomikoetarako lurzorua garatzeko ekintzak bertako eskaria asetzen dela bermatzera zuzenduko dira eta Bilbao Metropolitarreko eskualde-egituratik bideratzen den kanpoko eskaintzaren zati bat bereganatzeko lurzoru-eskaintza berriak egingo dira.

- Okondo jarduera ekonomikoetarako lurzoruen garapen txikiko udalerritzat jotzen da. Jarduera ekonomikoetarako lurzorua udalerri barruko eskariaren arabera birdimentsionatzea izango da irizpidea.

- Bizitegi-eskaintzaren kuantifikazioa:

| Udalerria | Etxebizitzak 1996an | Etxebizitza okupatuak 1996an | Gehienezko kuantifikazioa 8 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 8 urte | Gehienezko kuantifikazioa 16 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 16 urte |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Okondo | 335 | 239 | 221 | 143 | 294 | 190 |

### 3.7. URDUÑA-ORDUÑA

**2. kapitulua. Ingurune fisikoaren antolamendua**

- Natura-intereseko eremuak: Gibijo mendigunea eta Garobel mendigunea.

- Hobetzeko eta/edo berreskuratzeko eremuak: Nerbioi ibaiaren ibilguan uholde-arrisku handiena duten eremuei dagozkienak (berriro gertatzeko 100 urteko aldia), eta I. eranskinean zerrendatzen diren lehengoratzeko eta hobetzeko beste ibai-ibilgu batzuen eremuak.

- Baso-intereseko eremuak (ikus Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapa).

- Nekazaritza-intereseko eremuak (ikus Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapa).

- Lur gaineko uren babesa: babes-zerrendak Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak ezartzen dituenak dira: 30 metro, Nerbioi ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Pagatxa errekaren eta Delikaren artean, eta ingurune fisikoaren antolamendu-mapan irudikatzen diren, berariazko identifikaziorik ez duten eta babes bereziko esparruen artean barne hartu ez diren gainerako ibilguen lurzoru urbanizaezinerako. Sare hidrografikoaren gainerakoaren kasuan, Uren Legean ezarritakoa aplikatuko da, babes hidrologikoaren ondorioz mugatu beharreko erabilerei dagokienez.

100 metroko zerrendetan lurzoru urbanizaezineko berezko eraikuntzak, jarduerak eta erabilerak soilik onartuko dira. Ongi kontserbatutako landaredia hartzen duten zerrenda horien esparruetan, identifikatutako landare-formazioaren kanpoaldeko mugaz 10 metro harantzago zabalduko dira zerrenda horiek. Puntu horiek I. eranskinean zerrendatutakoak dira.

**3. kapitulua. Ingurumen-kalitateko azpiegiturak**

- Ur-hornidura Maroñoko urtegiaren eta lurraldeko hainbat puntutan zehar banatutako lurpeko eta lur gaineko hartuneen bitartez. Hiri-hornidurari, abeltzaintzakoari eta industrialari beste baliabide batzuk esleitzen zaizkie. Lehen etapa batean Maroñoko urtegia goratzearen eta bere erregulazio-ahalmena gehitzearen ondoriozkoak izango dira. Bigarren etapa batean Erbi herrigunetik hurbil eraikitzea aurreikusten den Herreriasko urtegia egiteari ekingo zaio.

- Arazketarako, Urduña-Orduñako, Markijanako (Amurrio) eta Besaurbeko (Llodio) ur zikinen araztegiak ezartzen dira Nerbioi ibaiaren arroan kokatzen diren guneetarako.

**4. kapitulua. Azpiegiturak eta ekipamenduak**

- A-625 errepidea egokitzeko eta hobetzeko jardunak: Urduña-Orduña – Amurrioko saihesbidea tartea egokitzea eta hobetzea.

- Vitoria-Gasteizerako konexioak hobetzea: A-2521 errepidea Urduña-Orduñarantz.

- Landaguneetarako irisgarritasuna hobetzea: A-2625 errepidea Burgostik, Urduñako mendatean barrena.

- Trenbide-garraioari dagokionez, toki, foru eta autonomia-erkidegoko erakundeetatik Bilbao – Llodio – Amurrio – Urduña-Orduña tartean aldiriko zerbitzuak areagotzea sustatuko da.

- Eskualde-egiturako landa-espazioen eta hiriguneen artean garraio kolektiborako zerbitzuen esperientzia pilotuak garatzea sustatuko da. Horretarako, plaza-kopuru txikiko ibilgailuak erabiliko dira. Urduña-Orduñari honako ibilbide hau dagokio: Urduña-Orduña – Maroño – Arespalditza – Llodio, ibilbide horretan zehar dauden gune guztietan geldituz.

- Urduña-Orduña landaguneetako turismo-burutza den aldetik eginkizun horretarako beharrezko ekipamenduak eta instalazioak izan beharko ditu. Udal-plangintzak hirigune historikoan hotel-erabilerak gara daitezen errazteko aukerak aztertu beharko ditu.

- Nerbioiko Parke Linealaren garapena Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapan adierazitako esparruen gainean gauzatuko da eta atseden-eremutzat joko da. Espazio hori lur gaineko urak babesteko kategoriari dagokio eta, horrenbestez, lurzoru urbanizaezintzat hartuko da eta lurzoru-mota horri dagokion erabilera-arautzea aplikatuko zaio. Garapenari dagokionez, Parke Lineala lau jardun-unitatetan antolatuko da eta honako hauek izango dute eragina Urduña-Orduñan:

c. NPL-3, Amurrioko hegoaldean dauden industria-lurzoruen mugaren eta Urduña-Orduñako herrigunearen iparraldeko lurzoru urbanizagarrien artean garatzeko. Ibaiaren ibilgu zaharra berreskuratzea eta lehengoratzea barne hartuko du, harri-lubetak kenduz eta ur-bazterreko landaredia birsortuz.
d. NPL-4, Urduña-Orduñako hiri-lurzoruen hegoaldeko mugatik eskualde-egituraren mugaraino, Amurrion.

- Eskualdeko Sare Berdea, hainbat ibilbidek osatzen dutena, Udalaz Gaindiko Ekipamenduen eta Espazio Libreen Mapan adierazitakoekin bat etorriz. Urduña-Orduñako udalerriaren barruan: Urduña-Orduñako zirkuitua.

**5. kapitulua. Kokaguneen sistema eta jarduera ekonomikoen espazioak**

- Urduña-Orduñak bizitegi-eskaintza eta garapen berriak hartzeko ahalmen handia du. Bere ingurunearen ingurumen-kalitatea eta hiriaren ondare-interesa dira gune honen hazkundea bultzatzeko funtsezko aktiboak, Bilbao Metropolitarreko eta eskualde-egituraren iparraldeko dentsitate handiagoko eremuetatik urrunago egotea konpentsatzeko behar duen balio erantsia ematen diotenak.

a. Hirigune historikoa berreskuratzea da lehentasunezko helburua. Ildo horretan, hirigune historikoan dauden eraikinak birgaitzera zuzendutako ekintzak sustatuko dira. Lurraldearen Zatiko Planak ekimen honen arrakasta muga dezaketen fatxadak babesteko arauak berrazter daitezen bultzatuko du.

b. Bizitegi-garapen berriak gaur egun programatuta dauden lurzoruen gainean sustatuko dira; alabaina, eskaintza hori zabaldu ahal izango da gaur egungo hirigunearen ondoan dauden lurzoruen erreserbaren bitartez. Horretarako, ekialdean saihesbidearen egungo itxituran kokatzen direnak eta hirigunearen eta industria-eremuaren artean kokatzen direnak proposatzen dira.

c. Komunikazio-azpiegiturak hobetzea, hemen A-625 errepideari buruz egiten diren zehaztapenak batik bat, eta trenbide-zerbitzuak areagotzea ezinbesteko baldintzak dira Urduña-Orduñarako proposatzen den estrategiak arrakasta izan dezan.

- Irizpide orokor gisa, jarduera ekonomikoetarako lurzorua garatzeko ekintzak bertako eskaria asetzen dela bermatzera zuzenduko dira eta Bilbao Metropolitarreko eskualde-egituratik bideratzen den kanpoko eskaintzaren zati bat bereganatzeko lurzoru-eskaintza berriak egingo dira.

- Arakaldo, Artziniega, Urduña-Orduña eta Orozkoko udalerrietan jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren neurrizko hazkundea hartzen da aintzat. Udalerri horietako plangintzan ez da jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarriko sektore gehiago ezarriko, pizgarri gisako ekimen publikoetarako lurzoruak edo bertako eskari berriei aurre egiteko lurzoruak izan ezik. Gaur egun dauden lurzoruak finkatzeko politika proposatzen da eta lurzoru horietan gaur egungo urbanizazioak hobetzeko eta akabera egokia emateko lehentasunezko ekintzak bideratuko dira.

- Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legean ezarritakoaren arabera, Lurraldearen Zatiko Planak honako kokapen eta dimentsionamendu irizpide hauek finkatzen ditu hurrengo 16 urteetarako, sustapen publiko zein pribatuko babes ofizialeko etxebizitzak edo etorkizunean berariazko arautzearen bitartez azken prezioa muga lekiekeen edonolakoak eraikitzeko erreserbatu behar diren lurzoruen (gaur egun horretarako kalifikatutako lurzoru libreak barne) kuantifikazioari buruz:

| Udalerria | Proposatutako BOE | Kalifikatutako BOE (2000ko urt.) | Kalifikatzeko premiak |
|---|---|---|---|
| Urduña-Orduña | 210 | 0 | 210 |

- Bizitegi-eskaintzaren kuantifikazioa:

| Udalerria | Etxebizitzak 1996an | Etxebizitza okupatuak 1996an | Gehienezko kuantifikazioa 8 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 8 urte | Gehienezko kuantifikazioa 16 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 16 urte |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Urduña-Orduña | 1.874 | 1.327 | 774 | 484 | 1.029 | 644 |

### 3.8. OROZKO

#### 2. kapitulua. Ingurune fisikoaren antolamendua

- Natura-intereseko eremuak: Gorbeiako Natura Parkea eta Itxinako Mendiguneko Biotopo Babestua.

- Hobetzeko eta/edo berreskuratzeko eremuak:

- Baso-intereseko eremuak (ikus Ingurune Fisikoa Antolatzeko Mapa).

- Lur gaineko uren babesa: babes-zerrendak Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak ezartzen dituenak dira: 50 metro, Altube ibaiaren lurzoru urbanizaezinerako, Nerbioi ibaiarekin bat egiten duen gunetik Argaitza errekarainoko tartean. 30 metro, Altube ibaiak eskualde-egituran egiten duen gainerako ibilbidearen lurzoru urbanizaezinerako, eta ingurune fisikoaren antolamendu-mapan irudikatzen diren, berariazko identifikaziorik ez duten eta babes bereziko esparruen artean barne hartu ez diren gainerako ibilguen lurzoru urbanizaezinerako. Sare hidrografikoaren gainerakoaren kasuan, Uren Legean ezarritakoa aplikatuko da, babes hidrologikoaren ondorioz mugatu beharreko erabilerei dagokienez. 100 metroko zerrendetan lurzoru urbanizaezineko berezko eraikuntzak, jarduerak eta erabilerak soilik onartuko dira. Ongi kontserbatutako landaredia hartzen duten zerrenda horien esparruetan, identifikatutako landare-formazioaren kanpoaldeko mugaz 10 metro harantzago zabalduko dira zerrenda horiek. Puntu horiek I. eranskinean zerrendatutakoak dira.

#### 3. kapitulua. Ingurumen-kalitateko azpiegiturak

- Ur-hornidura Maroñoko urtegiaren eta lurraldeko hainbat puntutan zehar banatutako lurpeko eta lur gaineko hartuneen bitartez. Hiri-hornidurari, abeltzaintzakoari eta industrialari beste baliabide batzuk esleitzen zaizkie. Lehen etapa batean Maroñoko urtegia goratzearen eta bere erregulazio-ahalmena gehitzearen ondoriozkoak izango dira. Bigarren etapa batean Erbi herrigunetik hurbil eraikitzea aurreikusten den Herreriasko urtegia egiteari ekingo zaio.

- Arazketarako, Urduña-Orduñako, Markijanako (Amurrio) eta Besaurbeko (Llodio) ur zikinen araztegiak ezartzen dira Nerbioi ibaiaren arroan kokatzen diren guneetarako.

- Kolometako kokaleku eolikoa energia eolikoa sortzeko parkeak kokatzeko gaitasun handikotzat joko da.

#### 4. kapitulua. Azpiegiturak eta ekipamenduak

- BI-2522 errepidea hobetzea Llodio eta Orozko arteko konexioan.

- Vitoria-Gasteizerako konexioak hobetzea: A-3616 errepidea A-624 errepidetik Ousoñoraino, Orozkon.

- Landaguneetarako irisgarritasuna hobetzea: BI-2522 errepidea (Orozko – Baranbio).

- Orozko landaguneetako turismo-burutza den aldetik eginkizun horretarako beharrezko ekipamenduak eta instalazioak izan beharko ditu. Udal-plangintzak hirigune historikoan hotel-erabilerak gara daitezen errazteko aukerak aztertu beharko ditu.

- Eskualdeko Sare Berdea, hainbat ibilbidek osatzen dutena, Udalaz Gaindiko Ekipamenduen eta Espazio Libreen Mapan adierazitakoekin bat etorriz. Orozkoko udalerriaren barruan: Orozkoko zirkuitua.

#### 5. kapitulua. Kokaguneen sistema eta jarduera ekonomikoen espazioak

- Orozkoko udal-burutza erreferentziazko biztanlegunea da eskualde-egituraren landa-espazioak garatzeko eta lurraldea antolatzeko.

- Natura-interes handiagoko espazioetatik hurbil dauden gune txikiak lurralderako sarreragune gisa egokitzeko eragiketa pilotuak garatuko dira. Horretarako, aparkalekuak eta bisitariak hartzeko instalazioak ezarriko dira eta turismo-zerbitzuak kokatzea sustatuko da. Erakusgarri moduko proiektuen funtzio hori garatzeko Orozkoko Urigoiti eta Gallartu guneak ezartzen dira.

- Irizpide orokor gisa, jarduera ekonomikoetarako lurzorua garatzeko ekintzak bertako eskaria asetzen dela bermatzera zuzenduko dira eta Bilbao Metropolitarreko eskualde-egituratik bideratzen den kanpoko eskaintzaren zati bat bereganatzeko lurzoru-eskaintza berriak egingo dira.

- Orozkoko udalerrian jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren neurrizko hazkundea hartzen da aintzat. Gisa horretako udalerrietako plangintzan ez da jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarriko sektore gehiago ezarriko, pizgarri gisako ekimen publikoetarako lurzoruak edo bertako eskari berriei aurre egiteko lurzoruak izan ezik. Gaur egun dauden lurzoruak finkatzeko politika diseinatzen da eta lurzoru horietan gaur egungo urbanizazioak hobetzeko eta akabera egokia emateko lehentasunezko ekintzak bideratuko dira.

- Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legean ezarritakoaren arabera, Lurraldearen Zatiko Planak honako kokapen eta dimentsionamendu irizpide hauek finkatzen ditu hurrengo 16 urteetarako, sustapen publiko zein pribatuko babes ofizialeko etxebizitzak edo etorkizunean berariazko arautzearen bitartez azken prezioa muga lekiekeen edonolakoak eraikitzeko erreserbatu behar diren lurzoruen (gaur egun horretarako kalifikatutako lurzoru libreak barne) kuantifikazioari buruz:

| Udalerria | Proposatutako BOE | Kalifikatutako BOE (2000ko urt.) | Kalifikatzeko premiak |
|---|---|---|---|
| Orozko | 135 | 87 | 48 |

- Bizitegi-eskaintzaren kuantifikazioa:

| Udalerria | Etxebizitzak 1996an | Etxebizitza okupatuak 1996an | Gehienezko kuantifikazioa 8 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 8 urte | Gehienezko kuantifikazioa 16 urte | Gutxieneko kuantifikazioa 16 urte |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Orozko | 1.073 | 637 | 567 | 365 | 754 | 485 |